

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXVIII. edizioa

2 0 1 6



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXVIII. edizioa

2 0 1 6

*Mig
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

TECNIGRAF, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-557-2016

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Ongi etorriak izan zaitezte guztiok. Mikoleta Ipuin Lehiaketaren XXVIII. Edizioaren sari banaketa ospatzeko bildu gara hemen. Gogoratzen dut nire semeek ere lehiaketa honetan parte hartu zutela eta beraientzat ere oso garrantzitsua izan zela parte hartzea, eta horixe da bereziki gurasook bultzatu behar duguna, gure seme-alaben lana, ahalegina eta esfortzua. Horrexegatik gaur hemen hogeita bost gazte izan zarete sarituak, baina nik esango nuke 1.048 parte hartzaileak zaretela benetako irabazleak. Lehiakortasuna alde batera utzi behar dugu eta benetako baloreak bultzatu gazteen artean, elkartasuna, tolerantzia, errespetua eta kooperazioa, horiexek baitira etorkizuna eraikitzeke oinarriak.

Juan Mari Aburto
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko martxoaren hamarrean arratsaldeko bost eta erdietan batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXVIII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 1.048 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. PEIOREN BOTEREAk,
Aritz Ulacia Calzacorta,
La Salle Bilbao HLBHIP.
2. TARTA GOXOZALEA,
Ainhoa Sanchez Penoucos,
Iruarteta HLHI.
3. NESKA FUTBOLARIAK,
Prianka Taranco Ortiz,
Karmelo Ikastola IPI.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. SHAIMAREN ETA ITZIARREN GUSTUKO BIZITZA,
Garazi Oñate Zarraga,
Maestro García Rivero HLHI.
2. ASTRONAUTA BIKAINA,
Iker Cortés Terré,
Pagasarribide HLHI.
3. LIBURU MISTERIOTSUA,
Naiara Mungia Garaizar,
La Salle Bilbao HLBHIP.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. KRISTALAREN KONTRA,
Nerea Erdozain Toribio,
Gabriel Aresti BHI.
2. AITITE RICARDOREN BIZIPENAK,
Urko Arranz Rodriguez,
Begoñazpi Ikastola HLBHIP.
3. TXANOGORRITXUREKIN GERTATU ZENA,
Ibone Domingo Fernandez,
Artxandape Ikastola HLBHIP.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. LO EGIN,
Natalia Santos Salado,
Ntra.Sra.del Carmen HLBHIP.
2. AMAIERAREN HASIERA
Ane Zugaza Goienetxea,
Artxandape Ikastola HLBHIP.
3. DANIELA,
Sofía Calleja Zabala,
Ikasbide HLBHIP.

ARGITARAGARRIAK:

A KATEGORIA:

- PINGUINO AUSARTA, Zihara Martin de Vidales Diaz, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- ZUHAITZ ZAHARRA, Josu Hurtado Cordero, Luis Briñas-Santutxu HLHI.
- LAURA SURFALARIA, Maialen Argote Delgado, Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA:

- DESBERDINA!, Araitx Etxebarria Lezea, Deustuko Ikastola IPI.
- BENETAN DA GARRANTZITSUA NOLAKOA NAIZEN?, Maialen Montoya Relloso, Félix Serrano HLHI.
- ZORION EXPRESSAREN ALTXORRA, Ainhoa Santiago Rekagorri, Félix Serrano HLHI
- UME ERREFUXIATUA NAIZ, Harkaitz Calleja Soares, Félix Serrano HLHI

C KATEGORIA:

- AMETS ELKARTUAK, Jara Hounkpatin Barrado, San Adrian BHI.
- MUSU BATEAN JAKINGO DUZU ISILDU DUDAN GUZTIA, Ibane Ruiz Valiño, Ignacio Ellacuría-Zurbaran BHI.
- AMAREN ARRASTOAK, Maialen Garzón López, Miguel de Unamuno BHI.

D KATEGORIA:

- ARINAGO, ARINAGO!, Ane Rodriguez Torres, Solokoetxe BHI.
- ISPILUA, Irune Arteta Luque, Ikasbide HLBHIP.
- EZ DUT AMETSIK EGIN NAHI!, Irati Cadenato González, Gabriel Aresti BHI.

Eta batzarra bukatutzat eman da, Bilbon, bi mila eta hamaseiko martxoaren
hamarreko arratsaldeko sei eta erdietan.

Koldo Narbaiza Olaskoaga, epaimahaiburua

<i>Lutxo Egia, epaimahaikidea</i>	<i>Igone Etxebarria, epaimahaikidea</i>
<i>Irune Berro, epaimahaikidea</i>	<i>Irati Malatsetxebarria, epaimahaikidea</i>
<i>Juan Ramón Madariaga, epaimahaikidea</i>	<i>Txani Rodriguez, epaimahaikidea</i>
<i>Luis Gutierrez, epaimahaikidea</i>	<i>Pedro Alberdi, epaimahaikidea</i>

Goizalde Landabaso, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



Peioren botereak

*Aritz Ulacia Calzacorta,
La Salle Bilbao HLBHIP.*

Etxea koloreetako banderatzoz apainduta zegoen, tarta mahai gainean eta denak gonbidatuta zeuden! Peiok urte bat gehiago beteko zuen eta lehenengo aldiz bi eskuak erabili beharko zituen den denak zenbatzeko, sei urte egingo baitzituen.

Peio mutiko bilbotarra da, argala, ile gorria, urduria eta oso-oso beldurtia. Horregatik, ez zen askotan lagunekin jolasten min hartuko zuenaren beldurrez, ezohizko nonbaitera joateko beldurrez edo zerbait desberdina egiteko beldurrez. Eta horrek zorigaiztoko egiten zuen.

Pixkanaka-pixkanaka gonbidatuak iristen ari ziren baita bere osaba Martin ere, munduari bira egitetik zetorrena. Peiori asko gustatzen zitzaion berarekin egotea eta bere istorioak entzutea. Osabak beti kontatzen zizkion bizimodu edo animalia bereziei buruzko kontu harrigarriak. Arratsalde osoan egon ziren elkarrekin hitz egiten eta, festa bukatzeaz zegoenean, Peiok esan zion osabari:

—Asko gustatuko litzaidake zuk bezala toki desberdinak ezagutzea, baina ezin izango dut inoiz lortu, ez naiz ausartuko eta.



Orduan osabak hauxe esan zion Peiori:

—Entzun. Ni oso beldurtia nintzen, baina sekretu bat kontatuko dizut. Bilboko liburutegietan beldurra galtzeko botere harrigarriak lortu nituen eta ilusio, errespetu eta beste sentimendu lagungarriagoen truke aldatu nituen —esan zion belarrira Peiori.

Zur eta lur geratu zen mutikoa, ezin sinestuta baina ikusmin handiz galdetu zion:

—Nola izan daiteke hori? Non uzten da? Zer...?

—Lasai, itxaron —moztu zuen osabak—. Bihar elkarrekin joango gara liburutegira eta ikusiko duzu.

Peio ez zen inoiz liburutegian egon baina liburuz betetako gela izango zela imajinatzen zuen, horregatik ez zekien nola gerta zitezkeen horrelako gauza harrigarriak eta pentsakor lotaratu zen.

Hurrengo goizean goiz, Peio prest zegoen oso urduri, ia lorik egin gabe, buruari bueltak eman ondoren. Osaba iritsi zenean ziztu bizian irten zen etxetik, eskua eman eta kontu kontari iritsi ziren biak liburutegira.

Osabak liburu bat hartu eta mahaian jartzen zuen bitartean belarrira esan zion Peiori:

—Apalategi horretatik liburu bat aukeratu eta nire ondoan jarri zaitez.

Peio oso harrituta zegoen ez baitzuen ezer harrigarriarik ikusten baina osabaren esana egin eta Txiri urtxintxaren ipuina hartu zuen irakurtzeko.

Liburua bukatzeaz zegoela zirra sentitu eta ingurura begiratu zuenean, bakar bakarrik zegoela konturatu zen. Bat-batean zurrumbilo dirdiratsua sortu zen eta nahi eta nahi ez Peio zurrumbilorantz zihoala konturatu zen. Barruan sartu zenean, begiak itxi zituen eta buelta bueltaka noraezean hegan zihoala sumatu zuen, lurrean etzanda geratu zen arte. Dena isil-isilik zegoen baina Peio ez zen begiak irekitzera ausartzen.

Halako batean, zarata batzuk entzun zituen. Urduri altxatu zen eta begiak ireki zituen. Urtxintxa bat ikusi zuen eta ez zekien zergatik baina eza-guna egiten zitzaion. Kaixo, entzun zuen. Ingurura begiratu eta baso batean zegoela konturatu zen baina ez zuen urtxintxa besterik ikusten.

—Nor da? —galdetu zuen dardarka.

—Ni Txiri naiz eta zu?

—Ni Peio baina non zaude? Ez zaitut ikusten —esan zuen.

—Hemen nago zure aurrean, Txiri urtxintxa naiz.

Peio asko beldurtu zen ezin baitzuen sinetsi ikusten ari zena. Liburutegian irakurtzen ari zen ipuinaren barruan zegoela konturatu zen. Txiri Peio lasaitzen saiatu zen eta hauxe esan zion:



—Ikusten dut zure osaba bezalakoa zarela. Lehentxoago hemen egon da eta etorriko zinela esan digu.

—Ezagutzen al duzu osaba Martin? —galdetu zuen Peiok.

—Bai, aspalditik. Nik erakutsi dizkiot animalia harrigarriak, toki eta bizimodu desberdinak eta askotan etortzen da gurekin denbora pasatzera. Hemen utzi zituen bere beldurrak gaztetxoagoa zenean.

Peio asko lasaitu eta poztu zen. Arratsalde hartan ezagutu zituen Txiriren familia, basoko lagunak, hegan egin nahi ez zuen arranoa, baserrian bizi zen kangurua, Igel eta Zapo, argia edan zuen astoa eta Ledy basoiloa... Haiek zer zuten gustuko eta zer ez, nola bizi ziren, baita zergatik korrika, borrokatu edo negar egiten zuten ere ulertu zuen. Izugarrizko abenturak bizi izan zituen beraiekin baina ez zuen beldurrik izan, ezagutu eta ulertzen zituelako.



Iluntzean zurrunbiloa agertu zen berriro eta etxera bueltatzeko ordua zela konturatu zen. Aise bolada batekin bueltatu zen Peio liburutegira.

—Peio, Peio, ondo al zaude? —entzun zuen.

Begiak ireki zituenean osaba ikusi zuen. Elkarri begiratu zioten eta osabak keinu egin zion.

—Oso ondo nago, osaba —erantzun zion.

Etterako bidean inork ez zuen ezer esan. Peio pozik zihoan, bazekielako handik aurrera lagun asko edukiko zituela bai kalean eta bai liburutegian. Baina garrantzitsuena zen, gauzak ikasteko eta ulertzeko gaitasun boteretsuak aurkitu zituela liburutegian, bere beldurra uxatu eta zoriotsua izateko modukoak.

TARTA GOXOZALEA



Ainhoa Sanchez Penoucos,
Iruarteta HLHI.

Bazen behin, **tarta goxozale** bat herriz herri joaten zena **pasteltxo** bila. Behin, bidaiatu eta bidaiatu, herri txiki eta maitagarri batera heldu zen. **Karameluz** eta **gozokiz** eginda zegoen: ibaia **txokolatezkoa** zen, etxeak **gailetazkoak**, zuhaitzak **bainila** eta **esnegainez** eginak, **piruleta**zko basoa... Eta **tarta** oso gustura zegoen herri hartan.

Egun batzuk geroxeago, lagunak egin zituen eta ia egunero izozki mendietara joaten ziren trineoz jaistera. Gainera, trineoak **gaileta** erraldoiak ziren.

—Zergatik ez goaz mendira abentura bat egitera? —galdetu zuen tartak.

—Bai, bai! Zelako ideia ona! —erantzun zion bere lagun **donutsak**.



Eta horrela abentura berria hasi zuten **esnegainezko** mendirantz.

Mendiaren hasieran, **kakao** zuhaitz erraldoia zegoen eta ondoan kobazuloa. Gaua zenez, bertan geratu ziren lo egiten.



Biharamunean zuhaitzeko **kakaoa** hartu zuten gosaritzat. Gosaldu eta gero, ibiltzen hasi ziren. Bat-batean, aurrekoa baino kobazulo estu eta txikiago batera heldu ziren. Eta sartzea pentsatu zuten, baina arazo bat zegoen: inor ez zen zulo hartatik sartzen. Eskalatzen hasi ziren eta sarrera aurkitu zuten.



Behin barruan, **Gomi** izeneko sorgina ezagutu zuten eta bere lapikoan **gominolak** egin zizkien. Han geratu ziren egun batzuk eta behin **tartak** esan zuen:

—Aizu, Gomi, utziko ahal diguzu zure **piruleta** erratzean osteratxo bat egiten?

—Bai, noski. Nahi baduzue, etxera itzuliko zaituztet —esan zuen **Gomik**.

—Bai, bai! —oihukatu zuten guztiek.

Eta horrela **Tarta**, **Gomi** eta lagunak etxera itzuli ziren eta pozik bizi izan ziren.



Neska futbolariak

Prianka Taranco Ortiz,
Karmelo Ikastola IPI.

Bazen behin nesken talde bat futbola asko gustatzen zitzaiena. Taldean 5 neska ziren eta haien izenak: Irune, Oihane, Sonia, Ainhoa eta Iraia. Batek ile luzea zeukan, beste batek ile motza, beste bik ile kirruduna eta azkenak ez dakigu beti eramaten zuelako txapela jantzita.

Egun batean futbolera jolastera joan ziren eta mutilak futbolean jolasten ari zirela, batek esan zuen:

—Zer gertatzen da zuekin?

Irune eta Ainhoak erantzun zioten:

—Entzun, mutiko, guk ere jolastu nahi dugu.

—Zuek ezin zarete jolastu neskak zaretelako —esan zuen berriro lehengo mutilak.

—Ah, ez? guk eskubide bera daukagu —esan zuen Iraiak.

—Futbolean mutilok gara zuek baino hobeak; beraz, guk agintzen dugu.

—Ah, bai? erakutsi ea zuek hobeak zareten.

—Bale ba, nahi duzuenean.

—Oraintxe bertan.

Orduan mutilak jolasten zeudenean, Soniak esan zuen:

—Horiek gu baino hobeak direla? kar, kar, kar...

Orduan neskak barrezka hasi ziren baina gero bazegoen beste gauza bat ez zekitena egiten: txilena bat.

Andereñoarengana joan ziren eta esan zioten

—Zer da txilena bat? —galdetu zuten neskek.

Andereñoak esan zien:

—Nik txikitan futbolean jokutzen nuen. Txilena bat da pilota atzerantz jaurtitzea eta aldi berean botatzea. Oso zaila da baina praktikatzen baduzue, ikasiko duzue.

Neskak entrenatzera joan ziren eta gero partidua antolatu zuten, neskak mutilen aurka.

Mutilek onartu egin zuten.

Eta andereñoa arbitroa izan zen.

Partidua hasi eta...

GOOOOOOOOOOOOOOOOOOOOOOL

Soniak sartu zuen gol hori. Eta badakizue nola? Txilena bat egiten.

Mutilak harrituta geratu ziren. Momentu horretan erabaki zuten handik aurrera mutilak eta neskak elkarrekin jolastuko zirela futbolean.


Partidu horretan denak izan ziren irabazleak.

Ah!! Eta hamar urte geroago, neska horiek futbol taldea osatu zuten eta txapelketa asko irabazi zituzten.

Eta katu katu, ipuin hau bukatu.

NESKEN TALDEA






*Zihara Martin de Vidales Diaz,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Bazen behin Kimu izeneko pinguino kumea Antartikan bizi zena. Kimu ez zen beste pinguinoak bezalakoa, begi handiak zituen eta ile urdin iluna eta zuria. Bere herriko beste pinguinoek oso gustuko zuten igeri egitea baina Kimu oso trebea zen snowboard egiten. Berak lagun piloa zuen: Oier, Uxue, Mikel, Amaia, Aratz, June... eta beste batzuk.

Egun batean snowboard egiten zegoela orka bat ikusi zuen izotz lodi baten azpian burua atera eta arnasa hartu nahian, baina ezin zuen izotza apurtu. Kimuk erakutsi zion non zegoen izotz finagoa burua ateratzeko. Orkak esan zion:



—Eskerrik asko. Bizia zor dizut. Ni Rodolfo deitzen naiz.

—Ez horregatik. Ni Kimu naiz.

—Nahi baduzu, hemendik aurrera lagunak izango gara.

—Bale! Baina orain etxera joan behar dut. Beste egun batera arte.

Kimuk agur esan eta etxera itzuli zen. Biharamun goizean, jolasten ari zirela, esan zien Kimuk lagunei:

—Bueltatxo bat ematera noa.

Bat-batean itsas-txakur batzuk etorri eta Kimuren lagunak eroan zituzten.

Kimuk urrunetik ikusi zituen baina iritsi zenerako fokek euren lurraldera alde egin zuten. Kimu orduan lagunak salbatzera joan zen. Itsas-txakurrak Mara izeneko irla batean bizi ziren eta horra heltzeko Kimuk bere taula gainean igeri egiten joan behar izan zuen.

Hara zihoala, orka handi eta potolo batzuk atera zitzaizkion bide erdian. Horietako batek barreka esan zuen:

—Nagusi, begira zelako pinguinoa harrapatu dugun! Etorri-etorri ikustera. Begira zelako merienda harrapatu dugun.

Kimuk hori entzun zuenean beldurtu egin zen bazekielako orkek pinguinoak jaten zituztela. Orken nagusia iritsi zenean esan zuen:

—Pinguino hau ezin dugu jan, nire laguna da. Herenegun bizitza salbatu zidan. Zer egiten duzu hemen, Kimu?

—Itsas-txakurrek nire lagunak harrapatu eta euren uhartera eraman dituzte. Salbatu behar ditut bestela itsas-txakurrek nire lagunak hil eta jango dituzte. Lagun-duko al didazue, mesedez?

Orka guztiek baietz erantzun zuten batera.

—Gainera itsas-txakurra gure platerrik gogokoena da —esan zuen Rodolfok.

Mara uhartera abiatu ziren denak. Itsas-txakurrek orkak hurbiltzen ikusi zituztenean uretara salto eta ospa egin zuten pinguinoak hondartzan lotuta utzita. Orkek atzetik jarraitu zieten. Kimu hondartzara joan zen eta lagunak askatu zituen. Lagunek besarkada handia eman zioten Kimuri. Rodolfok Kimuri agur esan zion uretatik eta itsas-txakurren atzetik abiatu zen.

Kimu eta bere lagunak etxera itzuli ziren eta han oso zorionsuak izan ziren fokak ez zirelako inoiz bueltatu. Kimuk jarraitu zuen snowboard egiten eta denek deitzen zioten Kimu pinguino ausarta.

Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Antartikako plazan!!!

Zuhaitz zaharra

*Josu Hurtado Cordero,
Luis Briñas-Santutxu HLHI.*

Bazen behin zuhaitz oso, oso, oso, zaharra baso batean. Zuhaitz hartan urtxintxa bat eta txori bat bizi ziren. Oso pozik bizi ziren han, urtxintxa zuhaitzeko zulo batean eta txoria adar batean.

Egun batean urtxintxa paseatzen zegoenean, bi gizoni hitz batzuk entzun zizkien:

—Autopista berria inauguratzeko zuhaitz zaharra moztu behar dugu.

—Eta ez du inork geldituko.

Urtxintxak hori entzun zuenean konturatu zen zerbait egin behar zuela baina laguntza eskatu behar zuen. Orduan txoriarengana joan zen, dena kontatu eta laguntza eskatu zion. Berak baietz esan zion eta aizkolarien tailerrera joan ziren biak, gizonek urtxintxa eta txoria ikusi gabe, euren tresna guztiak lapurtu zizkieten. Denetarik zeukaten: motozerrak, zerrak, aizkorak... denetarik. Tresnak kobazulo batean gorde zituzten. Kobazulo hori animaliek bakarrik zekiten non zegoen.

Baina aizkolariak ez zuten etsi eta orain zuhaitz zaharra erre nahi zuten.

Urtxintxak hori entzutean txoriari kontatu zion eta biak joan ziren eskarmentu handia ematera. Ailegatzean, urtxintxa ezkurak botatzen hasi zen eta txoria moko-ka hasi zen aizkolarien kontra. Azkenean txoriak eta urtxintxak aizkolariak garaitu zituzten eta ez zuten moztu berriro beste zuhaitzik.

Katu katu, ipuin hau bukatu.



Laura surflaria

*Maialen Argote Delgado,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Bazen behin neska bat Laura deitzen zena eta asko gustatzen zitzaiona surf egitea. Udan Bakiora joaten zen surf egitera eta uda bukatzerakoan txapelketa egiten zuten.

Laura egun guztietan joaten zen surf egitera zapatuetan izan ezik. Egun bitara erakusketa bat egingo zuten bere gurasoei erakusteko. Bi egunak pasatu ziren eta erakusketa eguna heldu zen. Banan-banan atera behar ziren olatua hartzeko. Lauraren txanda heldu zen eta oso urduri zegoen olatu oso handiak zeudelako. Uretara sartu zenean olatu oso-oso handia etorri zen eta Laurak taularekin hankan kolpea hartu zuen. Sokorristak korrika joan ziren Laura hartzeko eta medikuarengana eramateko. Medikua esan zion bihurdura oso larria zuela eta hilabete eta erdi egon beharko zela bendarekin.

Laura oso haserretuta zegoen ezin zuelako surf egin. Lagunek deitzen zioten baina Laurak ez zuen erantzuten. Lauraren lagunak haren etxera joan ziren baina berak ez zuen hitz egin nahi eta haserretuta joan ziren.

Egunak pasatu ziren. Laura bakarrik sentitzen zen eta bere lagunei barkamena eskatzera joan zen. Lagunek Laura barkatu zuten.

Azkenik Laurari benda kendu zioten. Txapelketa heldu zen eta ez zuen irabazi uda guztian ez zuelako praktikatu, baina konturatu zen garrantzitsuena ez zela txapelketa, bere lagunekin egotea baino.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Shaimaren eta Itziarren gustuko bizitza

Garazi Oñate Zarraga,
Maestro García Rivero HLHI.

Zuek uste duzue lesbiana izatea gauza txarra dela? Nik ez. Baina Erdi Aroan ez zegoen lesbianarik. Inpresio txarra emango zutela uste duzue? Badakizue zergatik deitzen zaien lesbiana lesbiane? Nire istorioak zalantza horiek argituko dizkizue.

Duela urte asko Pisan nekazarien familia bat bizi zen, Les familia. Gurasoak eta aitona 11 seme-alabez arduratu behar ziren, baina 11 seme-alaba horietatik alaba bakarra ageri zen eta Shaima zuen izena. Shaima eta erregearen alaba, Itziar Biana, oso, oso, oso lagunak ziren. Bi neskak nerabe egin zirenean neska-lagun bihurtu ziren. Herriko jendeak, soldaduek, errege-erreginak eta Shaimaren familia-koek horrela esaten zuten:

—Ja, ja, ja!!! Bi neska eskua ematen! Ze nazka!

Bikote horrek ez zuen ulertzen hori, ez zelako gauza txarra.

—Nahi duzuen beste barre egin. Bi neskak elkar maitatzen badute, zoriontsu izan ahal dira. Ez zuek bezala!!! —esaten zuten neskek.

Herriko komentuan, oso bihotz onekoa zen fraide bat zegoen eta nesken maitasuna ez zitzaion gauza txarra irudit.

Shaima eta Itziar gero eta gehiago maitatzen ziren, baina horrek esan nahi zuen jendeak gero eta irain gehiago botatzen zizkiela. Ulertzen hasi ziren desberdi-

na izatea ez zela gauza ona. Horregatik fraidearengana joan ziren, bazekitelako bera zela lagundu ahal zien bakarra.

—Kaixo, zer moduz? —galdetu zuen Itziarrek komentuan sartu zirenean.

—Hemen, liburuak idazten —erantzun zuen fraideak luma tintontzian sartzen zuela.

—Badakit zergatik etorri zareten hona —esan zuen fraideak oso pozik—. Nire superliburu bat erostera!!! baietz! —jarraitu zuen.

—Ez, ez gara horretara etorri —esan zuen Shaimak nazka aurpegiarekin.

—Ejem, ejem —egin zion Itziarrek Shaimari ahotsarekin.

—Baina... nahi baduzu, bi erosiko dizkizugu. Zenbat balio dute? Zenbat orri dituzte? —galdetu zion Shaimak fraideari neska zintzo aurpegiarekin.

—Bale, batzuek 503 orri dituzte eta beste batzuek 2.001 orri, 503 orrikoek 30 florin eta 2.001ekoek 64 florin. Zelan ikusten duzue? —esan zien fraideak neskei.

“Oso garestia da” pentsatu zuen Shaimak. “Oso merkea da” pentsatu zuen Itziarrek.

—Erosiko dizkizugu —esan zuen Itziarrek.

Horrela galdetu zuen Shaimak baxuan:

—Nondik aterako dugu dirutza hori?

—Nire aita erregea da, gogoratzen?

—Bai, gogoan dut, baina zure aitak ez nau gogoko, eta zu bere alaba zara eta nire neska-laguna aldi berean. Orduan berarengana joaten zarenean aitak zurekin hitz egingo du eta florinak eman beharrean nire laguna izateari uzteko esango dizu.

Bi neskek baxuan hitz egiteari utzi zioten.

—Fraide jauna, beste gauza batera etorri gara. Arazo bat daukagu —esan zuten neskek azkenean.

—Zuk badakizu gu bikotea garela eta jendeak burla egiten digula, zuk izan ezik —hasi zen Itziar.

—Hasieran horrek ez gintuen kezkatzen, baina jen-



dea pasatzen hasi da. Ez zaigu gustatzen kaletik goazenean irainak guri botatzea —esan zuen Shaimak.

—Gainera etxera heltzean etxekoek ere irainak botatzen dizkigute eta ez da eroso —esan zuen Itziarrek kezka aurpegiarekin.

—Ni txikia nintzenean, desberdina nintzen eta txarto pasatu nuen. Orduan herritik joan nintzen eta hona, komentura, etorri nintzen bizitzera —esan zien laguntzeko fraideak.

Neskak korrika euren etxeetara joan ziren fraidea agurtu gabe, liburuekin noski. Han, poltsa bat prestatu zuten arropa, Itziarrek zuen dirua, janaria eta urarekin. Amaitu zutenean PISARRISA plazan aurkitu ziren berriro bi neskak.

—Nora joango gara? —galdetu zuen Itziarrek. Shaimak ez zekiela erantzun zion, baina arin bururatu zitzaion zer edo zer. Lehenengoz, PISAMISA tren-geltokira joan ziren eta han Florentziara zihoan trena hartu zuten. Bi lekuen artean ez zegoenez distantzia luzea, ez ziren han denbora asko egon. Gero, trenetik jaitsi zirenean euria egiten hasi zen eta korrika joan ziren aterpe bila.

Bitartean, PISARRISAN herriko jendea oso kezkatuta zegoen, haietaz ez zekitelako ezer.

Shaimaren gurasoak eta erregea oso errudun sentitzen ziren ez zituztelako euren alabak momentu txarretan lagundu. Baina herriko beste jende guztiak ez zuen berdina pentsatzen. Les familia eta Biana erregea euren alabak bilatzera joan ziren. PISAMISARA joan eta Toscana osoa zeharkatu zuten trenez.

—Ez ditugu aurkituko, Florentzia bakarrik geratzen zaigu eta oso arraroa da haiek han egotea. Nire alabari ez zaio Florentzia gustatzen oraindik ez dugulako lurralde hori konkistatu —esan zuen erregeak.

—Ezin dugu esperantza galdu —jarraitu zuen Shaimaren aitonak.

Oso kezkatuta zeuden baina, Shaima eta Itziar kezkatuta baino gehiago, triste eta bakarrik sentitzen ziren.

—Ba, niri ez litzaidake gustatuko “normala” izatea. Nik uste dut guztiok berdinak izango bagina, oso aspergarria izango litzatekeela bizitza —esan zuen Shaimak munduko arrazoi guztiarekin.

—Etxera joan nahi dut eta aitarekin egon. Buaaaaaaaaa!!! Buaaaaaaaaaaaaa-aaaa!!! —esan zuen Itziarrek negarrez.

—Nik ere etxean egon nahiko nuke. Buaaaaaaaaaaaaa!!! —esan zion Shaimak ere Itziarri negarrez. Orduan, trenera igo eta etxera joateko asmoa izan zuten.

Bitartean, herrian jendea pentsatzen geratu zen eta azkenean ulertu zuten guztiak desberdinak garela eta hori ez dela gauza txarra.

Itziarren eta Shaimaren gurasoek ez zituzten bi neskak inondik aurkitzen eta haien alabek egin zuten bezala trenera sartu eta etxerantz abiatu ziren. Alabek eta gurasoek tren bera hartu zuten eta han aurkitu zirenean poztasuna zen ikusten zen bakarra.

Hitz egin, abestu, dantzatu egin zuten, ... oso pozik zeuden.

Herrira heldu zirenean eta trenetik jaitsi zirenean herriak harrera txaloka egin zien.

Ordutik, dulantzi handiarekin bizi izan ziren.

Orain badakizue zergatik deitzen zaien lesbiana lesbiane?

Familien bi abizenak lotu zituztelako, Les eta Biana: Lesbiana. Bakarrik gauza

bat geratzen zait esateko: Hala bazan edo ez bazan, sar dadila Florentzian eta atera dadila PISAMISA geltokian.



Astronauta bikaina

*Iker Cortés Terré,
Pagasarribide HLHI.*

Duela urte asko eskola txiki batera neskatila bat heldu zen: Irene. Irenek lagun asko egin zituen lehen egunean. Oso ondo pasatzen zuen. Egun batean andereñoak esan zuen:

—Gaur zuek izan nahi dituzuen lanbideei buruz hitz egingo dugu. Nork nahi du hasi?

—Nik —esan zuen Irenek. Heldua naizenean nik... nik astronauta izan nahi dut!

—Ja, ja, ja, ja! Ezin zara astronauta izan. Neska zara! —esan zuten denek.

Irene negarrez korrika atera zen klasetik eta patioan ezkutatu zen. Bat-batean andereñoak ikusi zuen eta berarengana joan zen. Hauxe esan zion:

—Irene, ez utzi alde batera zure ametsak. Nahi duzun lana aukeratu.

—Eskerrik asko, andereño.

Elkar besarkatu zuten eta klasera bueltatu ziren.

Klasean zeudela, andereñoak esan zuen:

—Bakoitzak lanbide bat aukeratu eta jarraitu behar du. Lan bat dut zuentzat. Badakizue neska astronauta baten izena? Hori da zuen etxerako lana.

Hurrengo egunean, denek astronauta izen berbera esan zuten: Valentina Tereshkova. Valentina espazioan egon zen lehenengo emakumea izan zen.

Irene oso pozik sentitu zen eta bere ametsari jarraitzen hasi zen.



Institutura pasatutakoan zientzia ikasi zuen eta oso ondo igaro zuen institutua. Unibertsitatea zaila iruditu zitzaion, baina dena bikain egin zuen. Irene gimnasia joaten zen egunero indartsu egoteko eta bere ametsa lortzeko.

Prest zegoenean NASARA deitu zuen akademian sartzeko eta hauxe esan zioten:

—Hurrengo astean etorri. Froga batzuk egingo dizkizugu.

Irene oso pozik zegoen, baina urduri.

Hurrengo astean Irene AEBn zegoen eta NASARA heldu zenean froga gogorak egin zizkieten. Irenek frogak pasatu zituen!!!

Akademian misio baterako prestatzen ari zen. Martera joatea bizitzarik dagoen ikustera eta bizitzarik ez bazegoen bandera bat ipintzera.

2004ko azaroaren 21ean Martera bota zuten espazio-ontzi handi batean eta Irene oso urduri zegoen.

Martera joateko momentua zen, espazio-ontzian sartzean bi mutil: Urko eta Aitor. Eta hiru neska: Iratxe, Ane eta Janire. Lagun minak egin ziren.

Misia oso ondo atera zen, baina ez zuten bizitzarik aurkitu.

NASARA ailegatu ondoren lagunei insignia handi bat eman zieten.

—Ametsei jarraituz eta esfortzuekin ametsak bete ahal dira —esan zuen Irenek.

Irene eta bere lagunak Martera joan ziren lehenengo astronauta euskaldunak izan ziren.

Liburu misteriotsua

*Naiara Mungia Garaizar,
La Salle Bilbao HLBHIP.*

Egun batean, mutiko bat, Ander, liburutegian sartu zen irakurritako bi liburu itzultzeko. Liburu horiek nahiko aspergarriak iruditu zitzaizkion eta zerbait interesgarriagoa bilatzea pentsatu zuen. Martxan jarri zuen bere ideia liburutegitik paseatzen.

Bat-batean, Anderri liburu bat erakargarria iruditu zitzaion. Nahiz eta kanpotik ez eduki ezer berezirik, etxera eramateko hartu zuen. Liburutegiko arduradunarengana hurbildu zenean, honek esan zion:

—Ziur zaude liburu hau eraman nahi duzula?

—Bai, zer ba?

—Liburu hau hona ekarri zutenetik ez du inork eraman eta...

—Berdin dio, ni izango naiz lehenengoa.

Mutikoa saltoka eta irribarretsu zihoan kaletik, etxera heltzeko irrikan zegoen liburua irakurtzeko. Etxera heldu zenean bere amak hauxe esan zion:

—Itzuli dituzu liburuak?

—Bai, ama, eta beste liburu bat hartu dut —esan zion Anderrek amari.

—Ondo dago, baina gogoratu itzultzeaz.

—Lasai, ez dut ahaztuko. Ama, igo ahal naiz logelara liburu berria irakurtzera?

—Bai, noski.

Ander zitzu bizian logelara igo zen. Zapatilak kendu eta ohe gainera bota zen liburua irakurtzeko. Zabaldtu zuenean, berriz, triste jarri zen liburuak ez zuelako ezta hizki bat ere idatzita. Mutikoa liburu osotik bilatzen hasi zen, ea hitzen bat aurkitzen zuen. Hitz bakar bat ere ez zegoela ikustean, bere amarengana joan zen eta hauxe esan zion:

—Ama, liburu hau ez dago idatzita.

—Hori ezinezkoa da! Baina ekarri hona, ikusiko dugu zer gertatzen den.

Amak liburua zabaldtu zuenean harrituta geratu zen. Mutikoak arrazoia zeukan eta honela esan zion:

—Ander, arrazoia daukazu. Liburutegira joan eta itzul ezazu liburua.

—Ez. Berarekin geratuko naiz jakin nahi dudalako zergatik ez dagoen idatzita.

—Ados, zeuk ikusi. Egin nahi duzuna.

—Logelara igoko naiz liburua nola irakurtzen den ikertzera.

Ander, behin eta berriro, era desberdinetan saiatu zen liburua irakurtzen, orriak berotzen, ispilu baten aurrean jartzen... baina alferrik!! “Afaltzeko ordua heldu da eta oraindik liburua irakurri gabe. Baina ez dut etsiko!” —pentsatu zuen mutikoak.

Nahiz eta lotarako ordua izan, ezinezkoa zen mutikoarentzat loak hartzea. Orduan, liburua hartzea erabaki zuen. Linterna bat eskuan, liburua bestean eta prest zegoen lortzeko.



Bat-batean, liburu osotik hizkiak agertu ziren hamabi kapitulu agertu arte. Kapitulu bakoitza istorio desberdin bat zen eta gauero kapitulu bat irakurtzea erabaki zuen.

Lehenengo kapitulua irakurtzen hasi zenean, itsas azpira bidaiatu eta izugarrizko istorio baten protagonista nagusi bihurtu zen. Urpeko abentura sinestezina gozatu zuen eta istorioa amaitu zenean bere logelara oso nekatuta itzuli zen eta loak hartu zuen.

Goizean, esnatu zenean, hain gustukoa zuenez lehenengo kapitulua, bigarrena irakurtzea erabaki zuen. Baina liburua liburutegitik hartu zuen bezala zegoen. Horrela konturatu zen liburua bakarrik zela posible gauean irakurtzea.

Gauetz gau, abentura desberdinak bizi izan zituen, dinosauroekin, ilargian... Bakoitza aurrekoa baino hunkigarriagoa zen. Pena ematen zion liburua bukatzea, baina pentsatu zuen bere anaiarengana joatea eta liburua berari uztea.

—Tori, Mikel, liburu hau utziko dizut irakurtzeko, baina gauetz bakarrik irakurri ahal izango duzu.

—Gauetz? Aspergarria baldin bada, lokartuko naiz.

—Zu fidatu nitaz. Itzelezko abenturak biziko dituzu.

Mikelek horrela egin zuen eta bere anaiak bezala izugarrizko abenturak bizi izan zituen.

Bere anaiarekin liburuari buruz komentatzean, konturatu ziren abentura guztiz desberdinak bizi izan zituztela. Harridura kendu eta gero konturatu ziren liburuaren magia bakoitzak bere ametsak bizitzea posible egitea zela.

DESBERDINA!

*Araitx Etxebarria Lezea,
Deustuko Ikastola IPI.*

Lehenik eta behin, nik Maitane dut izena. 11 urteko neska naiz, altua, ilegorria, bihurria eta umore txarrekoa, baina alaia.

Udan primeran pasatu nuen, ume guztiek bezala, eguzkia hartzen, hondartzan bainatzen... Baina ikastolara joateko ordua iritsi zitzaidan.

Nire gelara neskato asko etorri ziren baita mutiko asko ere. Guztiok elkar eza-gutzen hasi ginen. Ezagutu ondoren, oso jatorrak iruditu zitzaizkidan.

Lehenengo eguna pasatu eta gero, guztiok oso batuta egoten hasi ginen, beti elkarrekin geunden eta jolasten; harrapaketan, saskibaloian, futboleant, eskubaloian... Neskato bat izan ezik. Beti zegoen bakarrik, patio orduetan gurekin etorri beharrean bazter batean esertzen zen eta han gelditzen zen patioko ordu erdi guztia.

Orduan, berengana hurbildu nintzen eta berarekin hitz egiten hasi nintzen.

—Katixa, zergatik ez zatoz gurekin jolastera?

—Denok iraintzen naute eta ni oso txarto sentiarazten nau horrek.

—Baina zergatik egiten dizute hori?

—Nire familia desberdina delako, aita eta ama izan beharrean bi ama ditudalako.



—Lasai, bi ama izateak ez du alde txarrik! Alderantziz, niri bi ama izatea gustatuko litzaidake, eta ez du garrantzirik zenbat aita edo zenbat ama dituzun. Zu zoriontsua bazara eta maite badituzu, berdin du horrek.

Ni harrituta gelditu nintzen familia desberdina izateagatik, Katixa baztertuta uztea, iraintzea, bultzatzea... Gauza bat argi neukan: horrek ezin zuen horrela jarraitu!!!

Ez nekien zer egin, ez neukan arazo hori konpontzeko ideiarik.

Hurrengo egunean, Solek, gure andereñoak, irteera bat egingo genuela esan zigun. Lurraskara joango ginen lotara, baina gurasoen artean bi bolondres behar genituen bi andereñorekin bakarrik ezingo ginelako Lurraskara joan.



Guraso bat ere ez zen agertu gelan bolondres! Inork ez zuen nahi Lurraskara etorri tontakeria iruditzen zitzaielako. Baina... bat batean bi ama agertu ziren, Ane eta Estitxu. Inork ez zituen bi emakume horiek ezagutzen, baina nik bai! Katixaren gurasoak ziren!

Euren buruak aurkeztu zituzten, eta... bai! arrazoia neukan, Katixaren gurasoak ziren. Hori jakitean, aulkitik altxatu eta besarkada erraldoia eman nien biei esker-rak emateko. Ane eta Estitxuri esker Lurraskara joan ahal ginen. Gelako guztiak poz-pozik jarri ziren bi guraso ikustean, nahiz eta Katixaren gurasoak izan. Oso pozik jarri nintzen Lurraskara joan ahal ginelako eta gelakoek ez zituztelako nazka aurpegiak jarri bi ama ikustean eta gainera Katixaren gurasoak zirela jakitean.

Lurraskara joateko eguna heldu zenean han zeuden Katixa, Ane eta Estitxu. Autobusean igo ginen eta paisaia politak ikusten hasi ginenean Estitxu eta Ane gauzak lasaitasunez azaltzen hasi ziren, ez andereño edo maisu batzuek bezala presaka eta urduri nola portatuko ginen pentsatzen.



Lurraskara heldu ginen, autobusetik jaitsi eta denok motxilak hartu genituen.

Orduantxe konturatu nintzen zergatik behar ziren bi guraso bi monitore falta zirelako eta bakar batek ezin zituelako gauza guztiak egin. Gure gelakoei Estitxu eta Anerekin egotea egokitu zitzaigun. Irribarre erraldoia atera zitzaidan.

Lehenik, zaldian montatzea tokatu zitzaigun eta Estitxuk bikain azaldu zigun nola egin, zaldiari aulkia nola jarri, zelan jesarri, hankak nola jarri...


Horren guztiaren ondoren, ikaskide guztiak konturatu ziren bi ama izatea ez dela inongo oztopo bizitzan eta norbait bazter batean uzteko arrazoia.

Momentu hartan Katixa, ni eta ikaskide guzti-guztiak jolastu ginen lehen aldia izan zen.

Arazoa konpondu ondoren, Katixa oso alai etortzen zen ikastolara eta hortxe ezagutu nuen benetan Katixa nolakoa den. Ez da neska isila, ezta arraroa ere. Neska ikaragarria da, alaia eta oso bihurria, ni bezalakoa!



Horregatik orain Katixa eta ni lagun minak gara.

Hortik aurrera, denok elkarrekin jolasten gara eta ez da inor baztertzen: familia desberdina duelako, baxuagoa edo



altuagoa delako... Eta horrelako zeozer berriro gertatzen bada, ez diot inori onartuko!!!

Azken finean, denok berdinak gara. Berdin du, nongoak garen, nolakoak garen, altuak edo baxuak garen... Bai, Katixaren gurasoak desberdinak dira baina oso alaiak dira, pazientzia handikoak, maitagarriak eta izugarrizko bi emakume dira! Eta horretaz nire lagun guztiak konturatu ziren gu Lurraskara joan ahal izateko egin zutenagatik.



Benetan da garrantzitsua nolakoa naizen?

*Maialen Montoya Relloso,
Félix Serrano HLHI.*

Bazen behin, lauki bat, Laukitxo, eta bere familia, ama, aita eta arreba, Laualdetxo.


Egun batean bizilekua aldatu behar izan zuten, ama eta aita langabezian zeudelako eta lana aurkitu behar zutelako beste hiri batean; Laukitxok ez zuen nahi, lagunak han zituelako eta han geratu nahi zuen. Hori zela eta, Laukitxo eta bere arreba negarrez hasi ziren. Baina amak eta aitak ez zieten kasurik egin, denak kotxera sartu eta martxan jarri ziren. Autoan lasaitzeko abesten hasi ziren. Gero Lau-




kitxo eta bere arreba lokartu egin ziren eta esnatu zirenean konturatu ziren bazeu-
dela bizitzera etorri ziren herrian.

Ailegatu zirenean, Laukitxo konturatu zen jende guztia triangelua zela eta
pentsatu zuen kostatuko zitzaiola lagunak egitea.


Hurrengo egunean, bera eta arreba eskolara joan zirenean mundu guztiak
txarto begiratzen zien, desberdinak zirelako, lau alde zituztelako eta oso arraroak
zirelako. Klasera sartu zirenean inork ez zuen haien ondoan jesarri nahi eta baka-
rrik geratu ziren. Patiora joan zirenean, Laukitxok neska bat bazter batean bakarrik
ikusi zuen eta fijatu zen borobila zela, Borobiltxo izenekoa. Neska borobila bere
adinekoa zen, begi berdeak zituen eta oso majoa zirudien. Neskak adi-adi begiratu
zion Laukitxori eta Laukitxok adi-adi begiratu zion neskari, eta berehala lagunak
egin ziren eta jolasten hasi ziren.



Hurrengo egunean patioan mundu guztia bikoteari begira zegoen eta denak
haiek iraintzen hasi ziren, baina haiei bost axola zitzaien esaten zutena. Haiek
haien bolara ibiltzen ziren futboleak jokatzen, harrapaketan jolasten eta oso ondo
pasatzen.



Bat-batean neska bat, Triangelita izenekoa, hurbildu zitzaien Borobiltxori eta Laukitxori eta haiekin jolastu nahi zuela esan zien. Haiek bi aldiz pentsatu gabe baietz esan zioten. Hirurak ederto pasatzen ari zirenez, mundu guztiak berbera egin zuen eta denak elkarrekin jolasten hasi ziren.



Orduan konturatu ziren ez dela garrantzitsua zer itxura dugun, inportantea barrukoa dela.

Zorion expressaren altxorra



Ainhoa Santiago Rekagorri,
Félix Serrano HLHI.

Egun batean gutun bat heldu zen etxera. Ez genekien nork bidali zuen baina gutun-azalaren barruan lau tren txartel zeuden, ohartxo batekin: “Ondo pasa Parisen!! Trenaren txartelek altxor bat aurkitzeko lehenengo pista daukate. Jarraitu pista guztiei eta trenaren barruan aurkituko duzue”. Irakurri genuenean harrituta geratu ginen baina joatea erabaki genuen. Maletak egin genituen eta geltokira abiatu ginen. Trena Parisera zihoan.

Neguko goiz bat zen. Nahiz eta hotz handia egin, egun eguzkitsua zen. Oporrak ziren eta Gabonetan geunden. Tren geltokia Gabonetako argiz beteta zegoen. Gure trenak Zorion Express zuen izena. Oso zaharra eta luzea zen. Lokomotora handia zeukan eta ikatza behar zuen mugitzeko. Zorion Express nire neguko eskularruak bezain gorria zen. Nire ahizpa Oihaneren eskularruak, berriz larrosak ziren, amarenak urdinak eta aitarenak berdeak.

Trenera igotzeko ordua zen. Igo ginen eta gure eserlekuetan beste gutun-azal bat aurkitu genuen. Lehenengo pista gure eserlekuen zenbakiak ziren, beraz. Bigarren gutun-azalaren barruan, bigarren pista zegoen: “Zoazte ikatza dagoen lekura”. Leku hori lokomotora zen. Hara joan ginen eta hirugarren pista aurkitu genuen ikatz sakuaren gainean. Barruan gutun-azala zikin-zikin zegoen. Barruan zegoen papertxoan hitz hauek zeuden idatzita: “Trenaren txartelak batzen dituen pertsona

aurkitu behar duzue”. Pertsona hori bilatzen hasi ginen baina ez genuen aurkitu. Eserlekuetara itzuli ginen, goibel. Bat-batean gizon bat hurbildu zitzaigun. Altua eta argala zen eta bibote handia zeukan. Aurpegi serioa zuen eta beldur pixka bat ematen zuen. Ni ikustean, ordea, aurpegia alaitu zitzaion eta esan zidan:

—Eskularru gorriak dauzkazu. Ainhoa zara, ezta?

—Bai —erantzun nuen harriturik.

—Eta zu... ile horia, kizkurak, eskularru larrosak... Oihane zara —esan zion ahizpari—. Eta zuek eskularru urdinak eta berdeak dituzue, beraz... euren gurasoak zarete. Etorri nirekin, mesedez. Norbaitek afaltzera gonbidatu nahi zaituzte.

Gizonarekin joan ginen treneko jatetxera. Oso polita eta dotorea zen eta Gabonetako argiz estalita zegoen. Mahai handi baten eserita... hau poza! Amama eta aitite zeuden! Besarkada handi bana eman genien eta oso gustura afaldu genuen. Mahaiaren gainean azken pista aurkitu genuen: “Kontuz postrearekin. Jaten baduzue, altxorrik gabe geratuko zarete”. Mezua irakurtzean guztiok barre egiten hasi ginen.

Sukaldariak tarta ekarri zuen, gaztelu polit baten itxura zeukan, eta dorre bakoitzean... Disneyland Pariserako sarrera bat zegoen. Oihane eta biok pozez zoratu ginen. Baina sarrera horiek ez ziren altxorrik politena. Amama eta aitite ikustea gauzarik onena zen.



Ume errefuxiatua naiz

Harkaitz Calleja Soares
Félix Serrano HLHI.


Kasim naiz, 11 urte dauzkat eta ume errefuxiatua naiz. Siriakoa naiz.



Nire aita, Abdul, hantxe dago, gerran. Ni, berriz, Siriatik ihesi noa nire amarekin, Ashilarekin, gerran ez hiltzeko esperantzarekin. Orain, Turkmenistanen nago, eta Turkiara eta Alemaniara heldu nahi dut.

Oraingoz, nire amarekin egin dudan bidaia nahiko gogorra izan da, baina GKEtako boluntarioak egon dira guri eta beste pertsoneri laguntzeko. Janaria eta burusiak eman dizkigute bizirik irauteko. Turkiako eta Bulgariako muga helduei bakarrik uzten zieten pasatzen umeak bazituzten. Guri pasatzen utzi ziguten

Sei hilabete pasatu dira eta Bulgarian nire amari hanka apurtu zaio eskailera batzuetatik erortzean; orduan, ospitalera eraman dute. Ni oso kezkatuta nago, ez dakidalako nire ama operatuko duten ala gurpil-aulkian eraman beharko dudan ondo egon arte. Bi egun barru esango digute zer gertatuko den.



Bi egun horiek pasatu dira eta nire ama gurpil-aulkian eraman beharko dut lau hilabetez. Lau hilabete horietatik bi pasatu dira eta Turkiako eta Errumaniako muga pasatzen ari gara.

Azkenean, lau hilabeteak pasatu dira eta nire ama ibili ahal da. Ni oso pozik nago horrexegatik. Orain,

Ukrainako muga pasatzen ari gara. Gure bidaia amaitzeko Hungaria eta Austria pasatu behar ditugu, eta ordurako Alemanian egongo gara.

Bi urte eta sei hilabete pasatu dira eta berri txar bat daukat: nire aita gerran hil da. Ama eta ni lur jota gaude.

Nire ustez, hemendik Alemaniara ez da ezer pasatuko.

Eta horrela izan zen. Handik Alemaniara ez zen ezer berririk pasatu.

C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



Kristalaren kontra



*Nerea Erdozain Toribio,
Gabriel Aresti BHI.*

Nire logelako kristalaren kontra uzkurtuta jarri naiz, triste. Ezpainak hortzekin indarrez estutu ditut, amorruez, zauria egin arte. Bi malko lodi erori zaizkit, masailak busti dizkidatenak. Eskuez malko garratzak kendu ditut aurpegitik; gero, nire mahukekin errimel beltza kendu dut, malkoekin aurpegia zikindu didana. Irratia piztu dut, baina segidan itzali dut “Can’t falling in love” abestia dago. Gorroto dut abesti hori.



Kristalaren beste aldera begiratu dut. Euri zaparrada ari du. Euri tantak kristala bortitz jotzen ari dira soinu polita eraginez. Kanpoaldean pertsona batzuk pasatzen ari dira, korrika, presaka, euritakoa eskuekin hartuta, busti ez nahian. Denak uniformez jantzita pasatzen dira, dotore, baina aspergarri samar. Armada bat ematen dute, denak pauso berberean. Mutiko txiki bat igaro da zira horia eta katiuska berde batzuk jantzi-

ta, ondo pasatzen ari da putzu batetik bestera saltoka. Irribarre bat marraztu zait aurpegian. Zira hartuko nuke eta kalera aterako nintzateke putzuetan jolasteko. Baina ezin dut.

Kristala lurrunez bete da. Eskuarekin igurtzi dut zeru grisa ikusteko. Jada euri-rik ez du egiten. Urrunean itsasoa ikusten da, ez dago bare. Zuri dago, aparrez beteta. Orduak eta orduak emango nituzke olatuak nola apurtzen diren begira. Urrunean surflariak ikusten dira, olatuekin borrokan. Badirudi olatuek jango dituztela baina beti ateratzen dira kanpoaldera. Zeruan kaioak daude, karranka, leku batetik bestera, beti olatuen gainetik. Irribarrea marraztu zait aurpegian; itsaslaba-rrera joango nintzateke, itsaso zabala ikusteko. Baina ezin dut.

Elur malutak jausten hasi dira; poliki-poliki. Kristalaren kontra jotzen dute, leun, zaratarik egin gabe. Malutei begira nago, bakoitzak forma bat du, bakoitza pauso desberdinean erortzen da. Bikote bat ikusten dut, bata besteari begira. Ez dute ezer esaten, irribarre batekin nahikoa da nahi dutena esateko. Musu leun bat eman dio masailean, eta keinu bat egin dio, joateko asmoz. Orain mara-mara ari du elurra. Teilatuak zuri-zuri utzi ditu, baita kaleak ere. Begiak gehiago ireki ditut haren edertasuna ikusteko. Baina ezin dut.

Ezin dut ikusi elurraren edertasuna, ezta haren forma ere. Ezta itsasoaren olatuak eta aparra ere. Ezta jende-aren pausoak eta haien arropen koloreak ere. Nire begi grisek ez dute ezertarako balio, garu-nari ez diote kasurik egiten eta. Ni ametsetan nagoen itsua naiz; kolore beltza baka-rrik ikusten duen eta ametsetan zeru urdina ikusten duen itsua. Kristalaren kontra jartzen den itsua haren ametsak inoiz ez amaitzeko.



Aitite Ricardoren bizipenak

*Urko Arranz Rodriguez,
Begoñazpi Ikastola HLBHIP.*

Etxean esaten dute gerla zer den jakiteko, aitite Ricardoren hitzak entzun behar zirela. Zoritxarrez aitite hori ez nuen ezagutu, baina zorionez bere bizitzaren hainbat gertaera ezagutu ditut. Horrela badakit Gallartan jaio zela eta, nik bezala, txikitatik betaurrekoak erabiltzen zituela. Gaztea zenean oso ikasle ona zen eta, agian, horregatik Gasteizen zegoen apaiztegi ospetsura joan zen apaiza izateko asmoarekin.

Seminario hartan irakasle oso azkarrak ezagutu zituen; zalantza barik, onena Jose Migel Barandiaran. Hala ere, apaiza izan aurretik seminarioa uztea erabaki zuen eta Bilboko bere etxera itzuli zen. Ez ziren garai lasaiak eta hortik gutxira estatu kolpe bat egon zen eta haren ondorioz gerla zibila. Familiako gizonek gerlara joan behar izan zuten; birramama Elvirak etxeko leihotik Artxandara begira ematen zituen orduak bere semeak bizirik egongo ziren pentsatuz, mendi horretan borrokan zeudelako bere seme batzuk, bi bandoetan gainera. Gerla zibiletan, batzuetan, ez dago bandoa aukeratzerik.

Aititek ikusmen txarra zeukanez ez zuen soldaduska egin eta ez zekien armak erabiltzen. Horregatik andazain lanak egin zituen batailoi batetara joan zenetik, Durruti batailoira, hain zuzen ere. Bere esku-ohearekin mota guztietako zaurituak eta hildakoak eramatean, barru-barrutik ezagutu zuen gerlaren krudelkeria.

Ankerkeria hori data zehatz batekin lotu zitzaion: 1937ko martxoaren 31. Egun horretan Durangora iritsi ziren eta han izandako bonbardaketaren ondorioak ikusi zituen: ehundaka hildako, hamaika zauritu, jendearen oihuak eta bereziki bizitza osorako ahaztu ezina izango zen gerla usaina. Berak zioenez, gerlari buruzko eztabaidak amaitzeko balio zuena.


Handik gutxira matxinatuek Bizkaia menderatu zuten eta egun batzuetan Ricardo, beste asko bezala, noraezean ibili zen menditik, goseak eta beldurrak hilik. Egun horietan, oso ondo gogoratzen zuenez, otordu bakarra egin zuen. Indarrik gabe zeudenean, bizitzan batzuetan agertzen zaizkigun pertsona on horietariko bat atera zitzaien bidera eta Zeberioko haren baserriaren atea zabaldu zien gosari eder bat eskainiz. Bizitza osoan gogoratuko zuen gosari hori. Momenturik txarrenetan beti topatzen da laguntzeko prest dagoen baten bat.

Ondoren, kartzela ere ezagutu zuen Burgosen. Eta han ere gosea, hotza eta bereziki beldurra sentitu zituen, egunero ateratzen baitzituzten hainbat preso itzultzen ez zirenak. Horretan ere, zortea izan zuen eta kartzelako apaizak, apaizetxeko ezaguna zenak, handik irteten lagundu zion.

Gerlako sufrikarioak pasatuz joan ziren. Ez ziren gutxi izan kontatu didatena-gatik. Bizitzak etengabe harritzen gaitu nagusiek dioten moduan. Urteak igaro ondoren, Ricardo ezkondu egin zen eta Bilboko bere etxean topatuko zuen auzokidea Zeberioko baserritarren semea zen: "Maisi"

Aitite Ricardo ez nuen ezagutu; esaten dutenaren arabera ez zuen gerlari buruz berba askorik egiten, seguraski oso mingarri izango zelako berarentzat.

Egun hauetan albisteetan ikus daiteke munduko hainbat tokitako jendearen sufrimendua eta niri Ricardoren bizipenak etorri zaizkit burura. Espero dut beraiek ere Zeberioko baserritarren bat topatzea.



Txanogorritxurekin gertatu zena

*Ibone Domingo Fernandez,
Artxandape Ikastola HLBHIP.*

Denok dakigu Txanogorritxuren ipuina, ezta? Ba ez... Zuek dakizuen ez da benetako ipuina, eman buelta ipuinari. Benetako ipuina horrela hasten da: Bazen behin, herri txiki batean otso bat, baina ez otso gaiztoa, baizik eta otso maitagarria. Otso horrek ez zuen okela gustuko, barazkijalea zen eta. Egun batean, Txanogorritxuren ama bere amarekin telefonoz hitz egiten zegoen bitartean Txanogorritxu entzuten zegoen. Bere ama jaraunspenari buruz hitz egiten zegoen, amonak bere etxea Txanogorritxuri emango zion. Txanogorritxuk pentsatu zuen amona hiltzerakoan berak bere etxea izango zuela; orduan zergatik itxaron? Amonaren etxearekin diru mordoa irabaziko zuen. Baina berak hiltzen bazuen, gartzelara joango zen... Bat-batean ideia bat bururatu zitzaion: otsoa zen gakoa. Otsoak hilko zuen amona! Arratsaldean basora joan zen. Han zegoen otso gixajoa, zelako zortea! —Barkatu —esan zuen Txanogorritxuk. —Bai? —Nire amonaren etxera noa eta galdu egin naiz.

—Zu joan ezkerreko bidetik eta ni eskuineko bidetik, ea nork aurkitzen duen lehenengo.

Egia da otsoak bide luzea esan ziola nahita baina apropos egin zuen, berak baitzekien txanogorritxuren nahia.

Etxera ailegatu zen lehena otsoa izan zen. Lorontzi baten azpian zegoen giltza hartu eta atea zabaldu zuen.

Amona ohean zegoen eta otsoak dena kontatu zion.

—Nire Txanotxu maitea, ni hil nahian! —esan zuen negar eginez amonak.

—Bai, eta janariak pozoia du. Eman zure jantzi bat eta ni, zure orde, egongo naiz ohean.

Amonak negarrez jarraitzen zuen.

—Baina lasai, ez dut janaria jango.

Egia da otsoa amonaren ohean sartu zela Txanogorritxu engainatzeko, baina amona salbatzeko izan zen.

DING-DONG!!!

—Sartu maitea —esan zuen otsoak.

—Amona? Zu zara?

—Bai.

—Zelako belarriak!

—Zu hobeto entzuteko dira.

—Eta begiak?

—Zu hobeto ikusteko.

—Eta ahoa?

—Zu hobeto jateko!

Ados nago zuekin. Egia da belarriena, begiena eta ahoarena, baina otsoa barazkijalea zen!!!

—Aaaaaa! OTSOA! —oihu egin zuen Txanogorritxuk.

Txanogorritxu korrika irten zen etxe hartatik baina bere aurrean polizia zegoen.

Entzun dudanez, Txanogorritxu denbora luzean egon zen lan sozialak egiten zoo batean. Gaur egun, zoo ezagun batean otsoen arduraduna da.

Eta amonaren etxeari dagokionez... Otsoa bertan geratu zen eta baratz bat eraiki zuen.

Orain badakizue Txanogorritxuren benetako ipuina, baina ez kontatu inori.





Amets elkartuak

*Jara Hounkpatin Barrado,
San Adrian BHI.*

Gau hartan, panpinak bakarrik zeuden ametsetan. Asierrek ez zuen asko pentsatu bere ahizpa txikiaren ametsen sartuta zegoela jakiteko eta konturatu zen hura gau luzea izango zela bere ahizpa minuturo esnatzen zelako. Dena kolorez beteta zegoen, panpinak alde batetik, panpinak beste aldetik... Dena panpinez beteta. Baina egia esanda Ilargik ez zuen gauza gehiegi ezagutzen; panpinak eta bere familia besterik ez. Bat-batean etxe bat agertu zen, Asier sartzera zihoan eta bere ahizpa esnatu egin zen. Asierrek begiak ireki eta negarrak entzun zituen. Momentu horretan konturatu zen gau hartan ez zuela lo gehiagorik egingo...

Astelehen arrunta zen. Asier, egunero bezala, zazpi eta erdietan esnatu eta gosaltzera abiatu zen, kontu handiz bere ahizpa jaio berria, Ilargi izeneko, ez esnatzeko. Sukaldera sartzera koan, bazegoen dena prestatuta Asierrek gosaltzeko, eta aita eserita zegoen aulki batean aldizkariari begira.

—Egun on, Asier! Zer moduz? Lorik egin ahal izan duzu Ilargirekin negarrez? Ez ahal zara bere ametsen sartu gaur, ezta? —galdetu zion aitak Asierri.





—Bai eta ez dut lorik egin. Baina ez kezkatu —erantzun zion Asierrek bere aitari erdi lokaturik.

—Ai ene! Hori bai zorte txarra, beti bestean ametsetan sartzen... Hori bai sorginkeria!

Asierrek ez zuenez hitz egiteko gogorik, aitak zerbait esan baino lehen amaitu zuen gosaltzen eta bere logelara abiatu zen. Logelan pijama kendu, arropa jantzi, motxila hartu eta ziztu bizian eskolara joan zen, gurasoei agur esan eta gero.

Institutura heltzean denak elkartu zituzten gimnasioan gau hartan lapurreta bat egon zela jakinarazteko.

Eguneko lehenengo orduan gorputz hezkuntza zuen eta irakasleak esan zuen joko berezi bat egingo zutela. Denak urduri jarri ziren, maisuak esandako joko berezia zein zen jakiteko gogoarekin. Baina azaltzerakoan... Denak harrituta geratu ziren. Jolas berezia lurrera botatzea eta bitartean musika lasaia entzutea zen. Asier harriturik geratu zen, baina esandakoa egin zuen besteak bezala eta konturatu zenerako lotan zegoen...

Ez zekien noren ametsean sartu zen, gainera zirudienez gela osoa lotan zegoen eta horrexegatik ez zen hain erreza jakitea noren ametsean sartu zen. Dena ilun zegoen, baina argi pixka bat zeukan gela bat zegoen. Gelatik bi gizonen ahotsak entzuten ziren. Asier gizonak nolakoak ziren ikusteko hurbildu zen. Bere gorputz hezkuntzako maisua beste gizon misteriotsu batekin hitz egiten zegoen.

—Guztia saltzerakoan diru asko lortuko dugu —esan zion gizon misteriotsuak maisuari.

—Bai, jakina, aberatsak izango gara —erantzun zion maisuak.

Asierrek hori entzuterakoan, ulertu zuen “jolas berezia” bere maisuak lo egin ahal izateko zela, lapurreta gauez izan zelako eta ezin izan zuelako lorik egin.



Asier amen batean esnatu zen. Ez zekien zer egin. Azkenean zuzendariari esatea erabaki zuen eta lapurtutako guztia berreskuratu zuten. Denek eskerrak eman zizkioten. Agian bere berezitasunak zerbaiterako balio zuela pentsatu zuen Asierrek.



Musu batean jakingo duzu isildu dudan guztia

*Ibane Ruiz Valiño,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.*

2015eko irailaren 6an:

Zazpiak ziren. Eguzkiaren izpiak leihoaren zuloetatik sartzen ziren, jaikitzeke ordua zen. Nire barrutik milaka gauza pasatzen ziren: beste ikasturte bat, berriro lagunak ikustea... Baina gehien larritzen ninduen Amaia berriro ikustea zen... Ohetik jaiki eta duxara abiatu nintzen. Beti bezala berandu nenbilen. Zapatak jantzi eta institutura joan nintzen.

2015eko irailaren 12an:

Igandea zen eta idazteko hamar minutu atera nituen. Lehenengo astea pasata eta bageneuzkan lau azterketa eta lan mordoa egiteko. Lehen aipatu dudan bezala oso larrituta nengoen, baina klasera iristean ez zen hainbesterako izan. Beti izaten nuen Amaia gogoan, niretzat ez zen ohiko laguna, beste neska-mutil guztiak bezalakoa. Bereganako sentimendu handiak neuzkan.


2015eko irailaren 26an:

Ohetik altxatu eta asteartea zela konturatu nintzen, gimnasia geneukan lehe-

nengo orduan. Gure lehenengo klasea zen. Aitor, irakaslea, oraindik ez zelako bueltatu oporretatik edo tutoreak esaten zigun moduan gauzak egin behar zituelako... Orduan aldalekuetara abiatu nintzen. Batzuk arropaz aldatzen zeuden, beste batzuk, berriz, denbora alferrik galtzen, hitz egiten. Aldaleku guztien artean nire klasekideena bilatzen hasi nintzen. Orduan, ate baten atzean Amaiaren ile horia ikusi nuen eta hurbildu egin nintzen. Neskek ikusi nindutenean korrika joan nintzen.

2015eko abenduaren 28an:

Lehenengo hiruhilekoa pasa, nota onekin... Ezin nuen gehiagorik eskatu! Azken aldiz idatzi nizunetik ez zait ezer interesgarririk gertatu. Beno bai, gezurretan nabil. Herenegun, patinatzerara joan ginenean, pistara sartu ginen eta ni Amaiaren atzetik nindoan. Bat-batean, Amaia irristatu eta ni bere gainera jausi nintzen. Ez nuke esango beraren gainera erortzeagatik txarto sentitu nintzenik, ez bere gainera erortzeagatik, berarekin hitz egiteko aukera izateagatik nolabait barkamena eskatzeko.



2016ko urtarrilaren 7an:

Institutura bueltatzeko garaia zen eta, egia esan bueltatzeko irrikaz nengoen. Amaia ikusteko gogo handia nuen eta lehenengo hiru klaseak azkar pasatzeko irrikaz nengoen. Patiora jaitsi eta Amaia bilatzen hasi nintzen; berarekin hitz egin nahi nuen. Korro batean eserita zegoen eta nirekin etortzeko eskatu nion:

—Eiba, Amaia!

—Bai, esan.

—Ez dakit hau nola esan...

Eta musu baten bidez adierazi nahi nion guztia esan nion, jende guztiaren aurrean, patio osoaren erdian.

2016ko urtarrilaren 25ean:

Egun hartatik, nire bizitza guztia aldatu egin da. Neuzkan ia lagun guztiak ez

dira zirenak. Patio guztietan jendea nitaz barreka egoten da eta intsektu arraroa banintz bezala begiratzen didate. Zergatik? Norbait gustuko dudalako ala emakumea naizelako?



Amaren arrastoak

*Maialen Garzón López,
Miguel de Unamuno BHI.*

Erori egin zaio. Hautsi egin da. Ez daukat hitzik une horretan sentitu dudana adierazteko. Barkamena eskatu arren, ez nau konforme utzi. Ez nekien erantzunik ematea ondo egongo ote zen, beraz, alde egitea erabaki dut. Ez neukan indarrik ezta hitz bat ere esateko. Kasualitatez hori izan behar da gertatu dena... Joe! Beti niri gertatzen zaizkit gauzarik txarrenak... Banago, bai, korrikan hasi eta hona heldu naiz. Une gogor horren azalpenak baditut, noski ditudala. Etxean geundela, Ainarak, nire lagun minak, nire beirazko bola hartu, behatu eta bere esku labainkorretatik lurrera jausten utzi du. Tira, ez da bola normala... Ez. Nire amak oparitutako bola zen. Amak 6 urte nituela eman zidan, begiratzen nuenean berataz oroitzeko. Baina ama duela 4 urte hil zen. 10 urte oraindik bete ez nituela, amak alde egin eta bakarrik utzi ninduen. Bere falta handia dut, nire bizitza ez da berdina bera barik. Amak ematen zien kolorea nire egun grisei eta ezberdin jarraitu zuen bularreko minbizia diagnostikatu ziotenean. Oso txarto pasatu zuen, beno, oso txarto pasatu genuen denok. Koskorra atera zitzaion besoaren azpian, geroago, aldaketa fisikoak antzeman zituen, eta azkenik azal narritadurekin medikuak bermatu egin zuen bularreko minbizia zeukala. Ama pertsona alaia zen. Pertsona langilea eta festazalea, adibidez, familia arteko ospakizunetan, bera zen gabonak eta festa guztiak animatzen zituen. Bere familia

maitatzen zuen eta haiek bera ere. Ikasketak eta lana beti ondo aurrera eramane zituen. Idaztea, irakurtzea, kirola egitea lagunekin egotea... ziren bere zaletasunak. Bihotz oneko pertsona zen. Batzuetan jeinu txarrekoa zela esan daiteke. Ideia finkoak zituen, ez zen erraza ama engainatzea baina, nire aitak lortu zuen. Adarrak ipini zizkion 8 urte nituenean eta handik aurrera ama eta aita bananduta bizi izan ziren. Ez dute inoiz harreman onik izan. Aita ez dudala inoiz maite izan esan dezaket. Ez zait inoiz gustatu nolakoa den. Ez dut uste elkarrekin egon gaitezkeenik ez bagara ondo konpontzen. Beraz, banatzea ondo etorri zitzaidan. Amarekin bakarrik bizitzea nahiago nuen. Eta ez dut aitaz ezer gehiagorik jakin banandu ziren unetik. Ama hil zela, amamaren eta aititaren etxera joan behar izan nuen bizitzera. Gogoratzen ditut lehenengo hilabete haiek zein gogorrak izan ziren. Ez geneukan diru askorik baina konpondu ginen. Izeko eta osabaren laguntza behar izan genuen ia guztirako. Institutua hasi berri nuen eta zailtasun handiak izan nituen. Ez nengoen konforme neure gorputzarekin eta zorakeriak egin aurretik psikologo batengana joaten hasi nintzen. Ez neukan ondo burua, arazoez, kezkek eta beldurrez gainditzeko. Psikologoak pila bat lagundu ninduen, batez ere amarena gainditzeko. Nik pila bat maite nuen beti ulertzen ninduelako. Garai hartan mutilak nire bizitzan sartzen hasi ziren. Batek baino gehiagok huts egin zidaten eta ez nuen nahi aitak amari egindakoa niri gertatzerik. Horrexegatik mutilak alde batera uztea erabaki nuen. Neska ederra eta jatorra izan arren, ez nuen ezer nahi.

Orain, banku batean jesarrita hauxe idazten ari naiz. Hauxe zen amak gustukoena zuen bankua. Beti hona etortzen ginen udazkenean eta neguan, banku honen gainean zuhaitzik ederrena zegoen eta. Beti tente mantendu zen han. Ama eta biok igandeko arratsaldeak igarotzen genituen han jesarrita, zuhaitzari behatzen. Ez zeukan ezer berezirik baina gustatzen zitzaigun. Oraindik noizean behin etortzea gustatzen zait nire amaz oroitzeko. Jolasleku honetan mila momentu bizi izan ditugu amarekin eta beirazko bola horrek irudikatzen zituen haietako pila bat. Beraz, zerbait garrantzitsua edo berezia eduki behar du bola horrek. Ainarak nahi gabe apurtutako beirazko bolan zegoen irudikatuta bankua, zuhaitza zein jolaslekua. Irudi hori nire ama eta biok neguan ateratako argazki bat zen. Egun polita iruditu zitzaigun bioi eta gainera nire ama argazkizale amorratua zen. Jolasleku horretan mila momentu txar eta on pasatu ditugu biok eta horrexegatik estimu handitan neukan. Une gogorrenetan bola hartzeko eta astintzeko esaten zidan amak.



Horrela bolak zeuzkan elur malutak bata bestearen atzean erortzen ikusteak baretuko ninduela esaten zidan. Horixe egin dut bizitza osoan, une txarretan ama gertu sentitzea eragin dit, malkoetan hondoratzea ere eragin dit askotan baina, gehienetan, ez hondoratzen lagundu dit. Beraz, gaurtik aurrera ez dakit zer egingo dudan, gaur bereziki. Ainarak bazekien nire amaren oparia zela elur malutazko beirazko bolatxo hori, berataz geratzen zitzaidan gauza bakarra, eta estimu handian neukala. Beraz, ez dakit zer egin ezta zer egingo dudan ere, Ainara barkatu eta nire amaren maitasuna eta egindako opariaren balioa gutxietsi edo nire laguna ahaztu eta nire ama beti maite izan dudanaren kontzientziarekin geratu. Eta horretarako ama behar dut, ziur nago berak lagundu ahal izango nindukeela kasu honetan. Nahigabea egin duela sinets dezaket ala neure kontra jo duela pentsatu beharko nuke?

Kattalin deitzen naiz, 14 urte bete berri ditut eta nire ama duela 4 urte hil zen.

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Lo egin

Natalia Santos Salado,
Ntra.Sra.del Carmen HLBHIP.

Charlottek ez zion inoiz iluntasunari beldur izan. Horixe zen gau bakartietan beti lagundu izan zion gauza bakarra. Baina aldi hartan, arrazoiren batengatik, dena desberdina zela iruditu zitzaion. Itzalek kalea irensten zuten tokira begiratzera biratzeko bulkada sentitzen zuen. Eta orduan, bere besarkada ilunaren bila ihes egiteko aukeran pentsatu zuen. Hala ere, bere senak arriskutsua izan zitekeela ziurtatu zion. Bere ausardia zela esan zezakeen.

Bere musuzapi zuriaren azpian burua hondatu zuen, aurpegiaren erdia ezkutatzen, eta hotzikara batek zerbaitez ohartarazten zuela sentitu zuen. Baina ez zuen zer zen jakin. Bidegurutzean eskuinerantz biratu zuen eta aurrekoaren antzeko kale batekin topatu zen. Biltegiek bidearen bi aldeetara atsedean hartzen zuten eta euren utzikeria erakusten zuten. Honek paretak jaten zituen kale-artean, eta leihoak –baita ateak ere– sufritutako bandalismoaren gehiegizko erabileretan islatzen zen. Denbora luzea ibili zen botata ziruditen kristal batzuen gainetik eta haien karraska sentitu zuen larru-bota azpian. Begiratzen zuen tokian asfaltoa zegoen: botilak, pintura-latorri hutsak, paperak eta identifikatzen gelditu ez zen gauza gehiago. Inor kontzientea izango ez balitz bezala metro gutxirik behin paperontzi bat zegoela. Inork hori existitzen zela jakingo ez balu bezala.

Lurzorutik begirada aldendu zuen zirimir arina bere gainean erortzen hasten zela sentitzerakoan. Gorantz begiratu zuen, aurpegia euriari erakutsiz erdi-itxitako begiekin, eta ilargia zeruan sendo egin zela ikusteak ustekabeen harrapatu zuen. Hodei beltz urdinxken artean, lotsarik gabe distira egiten zuen artean bere edertasuna ikus zitekeen Cheshire-ko katuak aho betean irribarre egiten ziola iruditu zitzaion. Baina bera ez zen Alicia eta utzitako habearte alderdi hura, ez zen “Lurralde miresgarria”.

Pausoa bizkortu zuen eta miresten joan zen bere irudia itxuragabetzen zela uhinen artean, putzuak zapaltzen zituen bitartean. Silueta haietan zerbait ez zegoen ondo. Lehorretan gelditu zen bere islari begiratzeko. Marroi koloreko uraren artean Charlotte izukaitz ikusi zuen. Dirdira misteriotsua zuen begietan, hotzak arinki gorritutako masailak, ile iluna aurpegiaren inguruan haizearekin dantzatzen eta ezin hobeto jarritako karmina ezpainetan. Inork ez zuen zin egingo pintura geruzaren atzean hautsitako pareta ezkututzen zela. Ikaratutako eta nahasitako neska txikia, bere amaren atzean ezkutatzera korrika egitea desiratu zuena. Ondo egin ote zuen hara joatean?

Argi dago ondo egin duzula etortzean. Benetakoa dela egiaztatu behar duzu. Bere buruari etengabe errepikatzen zion. Bizirik dagoela egiaztatu behar duzu.

Neska gerrak hondatutako hiria zirudien leku babesgabe hartan aurkitzen zen gutxi gorabehera justifikatutako arrazoi batengatik. Eta gutxi gorabehera esaten zuen norbaiti zer egiten ari zen esan balio suizida deituko ziolako. Askok zentzua galdu zuela esango zuketen, ez zekielako zeri egiten ari zitzaion aurre. Beste gutxi batzuek xalografia zela esango zuketen. Segur asko hori eta gehiago entzungo zuen bere planak norbaiti erakutsi balizkio. Baina ez zen kasua. Bakarrik zegoen gutunaren edukiaren kontra.

Hirurehun eta hogeita zortzigarren biltegira iritsi zen. Besteekin konparatzen bazuen, hobeto zainduta zegoen. Itxurak nekez erakusten zituen grafitiak eta leihoak ukigabe zeuden. Harako deia egin zion astearte arratsaldean bere etxeko atearen aurrean aurkitu zuen gutunak. Baina aitortu behar izan zuen hura ez zela guztiz arraroa. Hasieran ezaguna iruditu zitzaion. Irakurri zuenean grafia makur eta korpilatu ezagutu zuen. Lerroen artean gogoratu zuen bere aitak, hitza eman gabe desagertu baino lehen, kartak beti bere gelako atean uzten zituela. Idazle ona zen. Charlottek aitak idazten zizkion ipuin guztiak gordetzen zituen ohe azpian. Altuera handiko eta azal beltzuko aita berriro ikustea espero zuen.

Eta nahiz eta gutuna ipuin bat ez izan, une horretan aita bizirik zegoela jakiteak piztu zuen. Eta sentimendu horretatik nahasketa agertu zen. Geroago bera uzteagatik haserrea iritsi zen. Baina azkenean, bere amak odolak guztiarekin ahal zuela zioen beti. Eta amak okertzen ez direnez gero, azalpenak lortzeko itxaropena kokatu zen bere bihotzean.

Charlotte ikaratu egin zen itzalen artean zarata entzun zuenean. Orpoen gainean biratu zen, oso larrituta. Baina ez zuen ezer ikusi. Haizea edo katu madarikatu bat izan zela pentsatu zuen eta inportantzia kendu zion. Baina, zoritxarrez, erratuta zegoen. Bat-batean lurrun zuriz estalitako esku batzuek bere oihua isildu zuten eta

tiraka egin zioten atzerantz. Esku horiek heriotzaren kolorea zeukatela pentsatu zuen. Hara joatean gaizki egin zuela ere pentsatu zuen; hilko zela pentsatu zuen. Usain gozoa zutela pentsatu zuen. Logura zela pentsatu zuen. Gauza askotan pentsatu zuen. Baina pentsatu zuen azken gauza aitarekin aurkitzea izan zen, bere ipuin guztietako jabearen ahots gozoarekin xuxurlatzen entzutea: “Lo egin Charlotte, lo egin maitea.”



Amaieraren hasiera

*Ane Zugaza Goienetxea,
Artxandape Ikastola HLBHIP.*

Espaloian eserita egun osoa diharduen zahar hori naiz. Kale bazterrean ahaztuta geratu den agure hori, agurrak, besarkadak eta muxuak milaka ikusi izan dituen. Lagunen elkarrizketak eta emakumeen kezkak entzun izan dituen gizona. Beti espaloi ertzean eserita dagoen zoroa. Ahaztua izan naiz, eta gorroto dudak bakardadearen izenean mintzo naiz. Usoak hegaka ikusten ditut, gora eta behera, noraezean, helmugarik gabeko bidaia horretan. Eta nik, horrelaxe ikusten dut nire bizitza, usoen hegaldia bezala, beti joan etorrian, baina inora joan gabe. Dagoeneko joanak zaizkit denak, joanak zaizkit nire inguruan nituen guztiak. Joanak.

Minik handiena ama galtzean sentitu nuen. Nire amaren erraietan bizi izan nintzen duela laurogeita hamabost urte, bederatzi hilabetez. Bere barruan bizia nuen ume hura barrutik hil egin zen ama galtzean. Eta nire barruaren hilotz astun horrekin bizi behar izan dut berrogeita hamar urtez. Denek diote nola edo hala gertatu behar zuela, baina guztiok bizi gara gertatuko ez den itxaropenarekin.

Orduz geroztik, min amaigabe batek lagundu nau, espaloi horretan eserita, txorien kantuei arreta berezia eskainiz. Oroimenak, batik bat, dira nire burua egunez eta gauez gainditzten dituzten pentsamenduak. Oroitzapen madarikatu horiek ez dira nire burutik ateratzen; irteera aurkitzen ez duen eulia dirudite, kanpoaldea

aurkitu duela uste duenean, kristalarekin gogor ematen duen eulia. Eta horrela dihardu ordu osoa, agoniaz beteta, irteera aurkitu duela guztiz sinetsita, baina atera ezinik.

* * *

Jasanezina zen egoera hori. Amarekin liskarra izan nuen berriro eta horixe izan zen inflexio-puntua, erabaki hura hartzera bultzatu ninduen. Etiketetik alde egiteko deiadarka ari zitzaidan ahotsa belarri ondoan nuen, izan ere, nire kontzientziaren ahotsa zen, behin eta berriz nire buruan isildu gabe oihuka ari zena. Eta nire barruko ahots horrek agindutakoa bete nuen, hura isilarazteko, agian. Izan ere, hogeitaz urte pasata nituen, ez nintzen dagoeneko gai nire erabakiak hartzeko? Ba horra hor erabakia, maletak hartu eta ospa egitea. Egia esan, nik ere ez nekien zein izango zen nire norakoa, baina haserrez betetako une horretan nire estimu eta harrotasunak garrantzi handiagoa zuen. Orain, espaloi ertzeko zahar hori esperientziarik gabeko mukizu horren lekuan egongo balitz, gauzak guztiz ezberdinak izango lirake, dena egin bainuen gaizki, dena txarto, guztia.

Azkenean, ondoko auzoko ostatuan amaitu nuen, eskalez beteriko aterpe hartan. Haiek ere bere garaian zer edo zer gaizki egingo zutela pentsatu nuen, eta bizi osorako ordaindu behar izango zutela gaizki egin hori. Baina orain dudan ikuspuntutik begiratuta, eskale horiek izan ditugun presidente, agintari, enpresari edo edozein politikarik baino bihotz handiagoa zuten. Bai, hain itxura txarra dituztenak, okindegi eta elizen atarietan eskatzen agertzen zaizkigunak, kaletik ekiditen ditugunak, “mesedez” edo “egun on” sinple batekin gure bihotza uzkurrazten dituztenak. Horiekin oztupo ez egiteko otoitz egiten dugu, baina jainkoaren izenean egingdako eskaera huts horri jaramonik egin ezear, ez dakigu nora begiratu horiek lurrean etzanda edo eserita aurkitzen ditugunean.

Eta bertan nengoen ni, besoak gurutzatuta nituela, ohean eserita. Amak ez ninduen deituko, ondotxo ezagutzen nuen bera eta ni bezalakoxea zen, harroa guztiz. Lanik gabe, diru-sarrerarik gabe eta seniderik gabe. Hasiberri gaztea, txorora, mukizua, bizitzari buruz guztia zekiela uste zuen umemokoa. Ni.

Mezurik ez, dei galdu bat bakarra ere ez. Ezer ere ez. Inoiz ere ez, ezer ere ez. Egia esan, huts handia sentitzen nuen bihotzean, nahiz eta urte luzez nire desira bakarra berarengandik urruntzea izan. Kontraesan handia. Jendeak dioen bezala, ez gara gauzen balioaz jabetzen horiek galtzen ditugun arte. Egia handia, baina berandu konturatu nintzen. Eta ezin izan nuen ezer egin, denbora luzeegia pasatu izan zen etxetik joan nintzenetik. Atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut. Hasiberri horren beldurra, izua sentitzen dut egoera hori gogoratzean. Baina bakarrik nengoen, eta ez nuen inor.

Goizean goizetik eguzkia berriro sartzen zen arte kalean ematen nuen eguna lan baten bila, hain beharrezkoa nuen hori lortzeko.

* * *

20 urte geroxeago, etxea, lan egonkorra eta familia izatera heldu nintzen. Ez dakit nire zoriontasunaren ibilbidea hori zen, gaztetatik libre bizi nahi nuela esaten

bainuen beti. Baina, askotan, nahi edo ez, guztiek egiten dutena egiten amaitzen dugu; ikasi, lan egin, ezkondu, familia osatu, gehiago lan egin eta hil. Besteek pentsatuko dutenaren beldur gara, seguruenik, eta normaltasuna lortzea ondo ikusita dago. Baina zer da “normala” izatea? Zeintzuk dira “normaltasun” maila neurtzen duten parametroak? Zergatik ez diogu normaltasun esaten bizitza bizitzeari?

Ni zoriontasun deitzen nion horretan bizi nintzen. Goizean goiz esnatu, Sarari muxu eman, haurrak esnatu, lanera joan, etxera itzuli, emazteari berriro muxu eman eta haurrak lokartu. Hori zen nire eguna. Eta hori zen nire ohikeria, nire errutina. Horregatik jartzen nuen kolokan zoriontsu izate hori, benetan ez nekielako zoriontsu nintzen ala ez, eta are gehiago, ez nekielako zer zen zoriontasuna zehazki.

* * *

Negu gorriko egun hotz batean dei bat jaso nuen. Hori ez zen eguneroko zerbait; dei bat zazpitan, ez zegoen nire planen barruan, beraz, nire burua berri bat, seguruenik txarra, jasotzeko prestatzen hasi zen.

Telefonoa eskegi eta hasperen egin nuen, jasotako informazioa barneratu eta espaloi baten ertzean eseri nintzen. Orain “nirea” den horretan. Sinestezina zen jasotako berri hura. Amaren berri nuen hogeitaz urte geroago. Hogeitaz urte. Baina ez zen bere ahotsa entzun nuena, mutil gazte batena baizik. Ama egoitza batean zegoen, oroitzapenak lapurtzen zizkion gaixotasunaren besoetan erori zen eta. Malko bat erori zitzaidan. Ama, bere semea, ni, nor zen ahaztu ahal izatea pentsatze hutsak uste baino gehiago ikaratzten ninduen. Eta ikara hori izan zen egoitzara egunez egun joateko erabakia hartzera bultzatu ninduen.

* * *

Bere espresiorik gabeko aurpegia ikusteak harriduraren eta izuaren arteko sententzia eragin zuen nigan. Zuri-zuri zegoen, ezerezeroa begira. Gehien beldurtzen ninduen gertatu zen, amak ez ninduen oroitzen. Ulergarria, baina errealitateak min ematen zidan. Bizitzan asko gertatzen den zerbait da, min ematen du egia zein den ikusteak, eta horregatik begiak ixten ditugu. Aterpeko eskale horiek gogoratu nituen.

Gauetz pentsatu egiten nuen, ama oroitzen nuen. Gogoetak nituen, gehiegi eragiten nion buruari. Sarak ez zekien ezer. Ez nion inoiz ezer esan, ez zekielako zein izan zen nire benetako iragana. Gurasoak duela urte batzuk istripu batean galdu nituela zen bere ustea, beraz, hobe ezer ez esatea.

Egun askoren ostean, lehen pentsamendu positiboa izan nuen: patuaren, zoriaren indarra izan behar zen. Halabeharrez gertatu beharrekoa. Beti pentsatu izan dut gauzak zerbaitegatik gertatzen direla, guztiz sinetsita nago. Bizitza eta horrekin datorren zoria gure alde jartzen dira. Amak alzheimerra izan bazuen, gure harremana berriro hasieratik hasteko izan zitekeen agian. Betidanik pentsatu izan dut horrela, baina azken egun horietan jasotako berriak nire barrua ezezkotasunez bete zuen. Horregatik egunero joaten nintzen egoitza hartara, berriro hasieratik hasteko asmoz. Bere ahaztetik gure harremana berriro hastera.

—Nor zara zu, gazte?

—Zure semea naiz, ama —bota nuen tristura osoz.

—Nik ez dut inoiz semerik, senarrik, lagunik izan, ez dut bizitzarik izan.

Hitz horiek nire barruan zulo bat egin zuten. Pertsona batek bizitzarik izan ez duela entzuteak asko harritu eta, aldi berean, izutu ninduen. Egia esan, harritzekoa da gaixotasun soil batek zure bizitzako esperientzia guztiak lapurtzea, ulertezina gizakiarentzat. Gutxienez guretzako, hainbeste gauza dira ulertezinak, munduan, unibertsoan, txiki sentitzen baikara, eta gizakiak txiki sentitzea gorroto duenez, natura bide guztien bidez gainditzten saiatzen da. Natura gainditzten saiatzen. Bizia eman digun hori gailentzen ahalegintzen. Gizakiak basoak, hondartzak eta paisaiak suntsitu eta animaliak bereganatu ditu, eta egunez egun mundua pixka bat gehiago izorratzea lortu du.

Amak bere inguruan gertatzen zenaz ez zela jabetzen zirudien. Dagoeneko galdua nuela uste nuen, baina goiari eutsi nion, eta gure harremana berreskuratzen saiatu nintzen egunero, pixkanaka-pixkanaka.

Bidean hainbat oztoporekin egiten dugu topo, eta nire kasuan horrelaxe gertatu zen. Dena ondo zihoan, baina Sarak bera engainatzen ari nintzela uste zuen, egunero desagertzen nintzelako zenbait orduz, amarekin ematen nituen orduak. Inolako azalpenik ematen saiatu baino lehen joan egin zen, haurrak, gure haurrak, besoan zituela eta malko bat masailetik erortzen zitzaiola. Eta huraxe izan zen hasiera, nire bakardadearen hastapena.

* * *

—Kaixo, ama. Zelan joan da gaurko eguna?

—Oso ondo, baina zurekin denbora luzeagoa ematea gustatuko litzaidake.

—Badakit, ama, niri ere bai, baina badakizu egoitzako arauak oso zorrotzak direla.

—Joan daitezela egoitza eta bere arauak pikutara!

Urte erdi pasatu zen Sara etxetik joan zenetik. Egun horretatik aurrera amarekin egoteko denbora luzeagoa izaten hasi nintzen eta horrek asko lagundu ninduen. Begira, patuaren indarra sostengatzen zuen beste froga bat: Sara galdu nuen, bizitzak amarekin nuen harremana berreskuratzea nahi zuelako. Eta horrela gertatu zen. Amak bazekien orain bere semea nintzela. Elkarrekin pasatzen genituen orduak urrea ziren niretzat eta bera gogoratzen nuen egunero. Sinestezina iruditzen zitzaidan berarekin igarotako urteak hain txarrak izatea, baina gezurra bazarudien ere, hura ahaztu eta harreman berri bat hasi genuen.

* * *

Ezinezkoa, bizitza nire aurka zihoala zirudien. Patuaren eta zoriaren indarren ergelkeria horiek ahaztuta nituen, une horretan guztia iruditzen zitzaidalako lerdokeria hutsa. Eztarrian nuen korapiloa desegiten saiatzen nintzen bitartean, elizarako bidea hartu nuen. Baina saihestezina egin zitzaidan negar egitea, beraz hori izan zen egin zuena.

Apaizaren eta elizkizunean parte hartu zutenen sermoia entzun nuen; denek zioten Felixa, gure ama, ezagutu zuten pertsonarik onena zela, oso zorte txarra izan zuela alzhemerraren biktima izateagatik, eta horrelako txorakeriak. Gizakiak hil egin behar du ona izateko. Zelako amorrua, inork ez zuen ama ezagutzen, guztiak ziren nire amaren kontura pena eman nahi zuten atsoak. Baina ni ahaztua izan nintzen, eta hura izan zen bizitzaren unibertsitatean egin nuen bakardadearen karreraren hasiera, oraindik amaitu ez dudana.

* * *

Ez dakit hau guztia oroitu izanak lagundu nauen, baina berdin zait, nire amaiera, lasterketaren bizitza deitzen diogun horren helmuga, hurbil dago.

Berriro bizitzeko aukera izango banu, ez nintzateke hain arduratsua izango, ez nituzke gauzak hainbeste pentsatuko, besteek pentsatzen dutena pikutara bidaliko nuke, lasaiago biziko nintzateke eta soilik zoriontsu izateaz arduratuko nintzateke. Baina beranduegi da, eta izan dudana bizitza dohakabez eta zoriontasunez bizi izan dut.

Euri zaparrada baten azpian dagoen zaharra naiz orain, lasaitasunez blai eginda amaitu duen zoroa.



Daniela

*Sofia Calleja Zabala,
Ikasbide HLBHIP.*

Gaur nire lehen eguna da institutuan, DBHko 1 maila egingo dut. Nire ama ni lasaitzen saiatu da. Normala dela lehenengo egunean urduri egotea eta itxura zaintzea ere oso garrantzitsua dela esan dit, lehenengo iritziarekin jendeak etiketak jartzen dituelako eta gero ideia hori aldatzea asko kostatzen delako.

Aste guztia daramat zer jantziko dudan pentsatzen. Atzo gauean guztia erabakita neukan baina orain, ispiluan begiratzear, ez zait gustatzen. Gona arrosak kamiseta urdinarekin atzo primeran konbinatzen zuela iruditu zitzaidan, orain ez dut berdin uste. Hobeto geratzen zaidan beste kamiseta bat aukeratu behar dut. Momentu horretan nire ama sartu da logelan eta oihuka egin du:

—Baina zer jantzi duzu? Kendu hori oraintxe bertan eta utzi tontakeriak. Ez dizut esan lehenengo eguneko itxura oso garrantzitsua dela? Guztiek zutaz iseka egitea nahi duzu? Prakak jantzi berehala.

Beti bezala, ez dut beste aukerarik izan eta kasu egin diot. Prakak jantzi ditut eta eskolara joan naiz. Bidean pentsatu dut amak ez didala uzten ni naizen bezalako izaten. Batzuetan nitaz lotsatzen dela ondorioztatu dut. Nire kide berriekin zorte hobea izatea espero dut. Lehen joaten nintzen eskolan, ni neu sentitzen nintzen.

Jolas-orduan neska talde batengana hurbildu naiz.

—Kaixo, Daniel. Zure kamiseta urdina asko gustatzen zait.

—Egia esan, Da-Daniela nahiago dut.

Haien harridura aurpegiak ikustean, gehiago azaldu beharko naizela konturatu naiz. Ez da lehenengo aldia, beraz ohituta nago.

—Duela urte asko konturatu nintzen nire itxura fisikoa mutilarena dela, baina ni barrutik neska sentitzen naiz.

Haien harridura aurpegiak ikara-aurpegi bihurtu dira, baina azkar irribarre lasaigarri bihurtu dira.

Egun horretatik aurrera lagun min egin gara eta klase guztiarekin integratzen lagundu didate. Nahiz eta beti dagoen pertsonaren bat zirikatzen nauena, beste guztiek onartzen eta defendatzen naute. Atsegin izango nuke nire amak haiek ulertzen nauten bezala ulertzea. Gezurra dirudi klaseko kideekin erosoago eta lasaiago egotea nire familiarekin baino. Nire lagunei amarena kontatu diedanean pentsatu dute hori ezin dela horrela izan eta zerbait egitea erabaki dute.

Institutuan, urte guztietan, DBHko 1. mailakoek antzerki lana egiten dute eta guraso guztiak joaten dira euren seme-alabak ikustera. Aurten nire lagunek *Ahate itsusiaren* ipuina irudikatzea proposatu dute eta ni aukeratu naute protagonista izateko.

Oso pozik nago ipuin hau sano gustatzen zaidalako. Umea nintzenean ez nintzen nekatzen pelikula ikusten edo liburua irakurtzen. Ehun aldiz ikusi izan dut filma, gutxienez! Orain ulertzen dut zergatik gustatu zaidan betidanik.

Antzerkiaren eguna heldu da eta oso urduri nago. Amari ez diot esan antzerkiaren izena sorpresa izateko. Denbora luzea egon gara prestatzen eta primeran geratzea nahi dut. Nire papera buruz ikasi dut, baina esaldiren bat ahaztuko dudala eta barregarri geratuko naizela pentsatzen dut. Badakit tontakeria dela baina egia da ezin dudala ahaztu.

Institutuko zuzendariak esan duenean aurkeztuko dugun antzerkia ahate itsusiarena izango dela, imajinatu ahal izan dut amaren harridura-aurpegia. Berak, segur aski, imajinatzen zuen ohiko istorio bat izango zela, Romeo eta Julieta-ren modukoa, eta ni izango nintzela antzerki-lanaren protagonista esatean, pentsatuko zuen, ni neska bezala sentitzean ‘tontakeria’ amaituko zela. Horixe zen berak behin eta berriro errepikatzen zuena. Eszenan agertu nintzenean, ahate itsusiz jantzita, nire amaren ahoa zabal-zabalik ikustea lortu nuen azkenik, ezin zuen sinestu. Hain urduri nengoenez nire papera ia ahaztu zitzaidan. Eskerrak nire lagun Paulak nabari zuela eta lagundu zidala.

Horixe izan zen nire ziurtasun ezaren momentu bakarra antzerki guztian. Inoiz ez naiz sentitu hain ondo. Egia esateko, nire papera zen eta mundu guztiak



esan zidan primeran egin nuela. Ahate itsusi izatetik beltzarga izatera aldatzea sentitzea esperientzia ahaztezina izan zen.

Antzerki lana amaitu zen eta guztiok oso pozik geunden gure lanagatik. Guraso guztiek txalo egiten zieten harro bere seme-alabei baina nik amaren begietatik ateratzen ziren malkoak bakarrik ikusi ahal nituen.

Ikasle guztiak gurasoekin joan ziren etxera, baina Paula nirekin geratu zen amaierara arte. Nire ama zetorrela ikusi zuenean besarkada handi bat eman zidan eta zorte ona opa zidan. Beldurrez beteta nengoen, amaren erreakzioaren zain. Antzerkiak gordetzen zuen mezu handia ulertzea espero nuen. Erlaxatu egin nintzen ni ikustean besarkada handia eman zidanean. Ez nekien zenbat denbora pasatu zen baina oraindik bere besoetan nengoen eta biok negar egiten geunden. Azkenean belarrira esan zidan:

—Asko maite zaitut, Daniela.

Momentu hori itxaroten egon nintzen denbora piloa eta azkenik egia zen. Ezin nuen sinetsi.

Arinago, arinago!

*Ane Rodriguez Torres,
Solokoetxe BHI.*

Zortzi urte ez zituela hasi zen maratoiak korritzen. Denbora-pasa polita eta entretenigarria zen. Bere osabak eraman zuen lehenengo frogetara, izan ere, bera maratoi zale amorratua izan zen. Ondo pasatzen zuen eta gainera, ez zion denbora larregirik lapurtzen.

Denborak aurrera egin ahala, nerabegarora heldu zen. Ikasketak gero eta zailagoak ziren eta bere notak gero eta kaskarragoak. Lehen baino askoz gehiago entrenatzen zuen, ez baitzuen helmugara azkena heltzeak eragiten zion lotsa jasan nahi. Lasterketak irabazteak menpekotasuna sortzen zuen. Klasetik irten, arrapaladan jan, entrenatzera joan eta gauetz etxeko lanak egin. Egunero berdin. Astero berdin. Urtero berdin.

Gutxika-gutxika bere betiko lagunez aldendu egin zen. Klasean baino ez zituen ikusten. Bakardadearen mina nabaritzen zuenean zapatilak jantzi eta korrika egitera joaten zen, mamu beldurgarri hori uxatzeko asmoz.

Ikasketen maila areagotu ahala, beranduago oheratzen zen. Gero eta nekatuago zegoen klasean eta gero eta esfortzu handiagoa egin behar zuen bere burua adi mantentzeko. Kostata baina aprobatzea lortzen zuen.

Amari ez zitzaion gustatzen, bere alabaren etorkizuneko sufrimendua igarriko balu bezala; amek horrelako botere magikoa izan ohi dute. Baina aitzak gauero esa-

ten zion, lasaitzeko asmoz, alabari uzteko, hark jakingo zuela zer egin, eroriz ikasten dela oinez.

Benetan gertu sumatzen zuen bakarra entrenatzailea zen, nahiz eta harekin guztietan ados ez egon. Gizon burugogorra zen, oso. Altua zen, eta inoiz ikusitako begi berde ederrenak zituen. Denbora luzez begira egonez gero barruan galtzen zaren horietakoak. Pena ematen zion begi horiek malkoz betetzen zirenean. Lesio gogor bat izan zuen izterrean, eta konpetitzeari uko egin behar izan zion, baina korrika egiten jarraitzen zuen gizonak.

Entrenatzaileak berak baino hiru urte gehiago zituen. Bizitzan lagunak, familia eta ondo ikastea baino gauza garrantzitsuagorik ez zegoela esaten zuen. Ametsik handiena mundialetara heltzea zuen, eta ez zen heldu.

Neskak bere entrenatzailea maitatzen ikasi zuen. Elkarrekin egiten zuten korrika.

Hemezortzi urte zituela entrenatzaileak musu eman zion eta lagunak izateari utzi zioten, maitaleak izaten hasteko.

Neskaren markak gero eta hobeak ziren eta hemeretzi urte betetzeko zorian zegoenean, selekzio nazionaletik deitu zioten. Europako lasterketara ea joan nahi zuen galdetu eta berak segituan baietz erantzun zuen.

Selekzioak gauza bakarra eskatu zion: Dena uztea eta hiriburura joatea entrenatzera. Berak dudarik gabe baietz erantzun zuen. Eta hantxe laga zituen gurasoak, ikaskideak eta bikotekidea.

Asko exigitzen zioten eta gorputzean substantziak injektatzen zizkieten “bere onerako” zirenak. Orain ikusi du zeinen tuntuna izan zen.

Bere gorputza aldatu egin zen. Gutxiago jateko beharra zuen eta arinago mugitzen zen. Mundialetara heltzea zuen ametsik handiena eta heldu egin zen. Eta irabazi egin zituen. Eta baita hurrengoak ere.

Baina amets ederrek ez dute betiko irauten, eta bereak lau urteko epea izan zuen. Bere odola aztertu zuten, eta lortutako titulu guztiak kendu zizkieten. Kirola egiteari uko egin zion, lotsaren lotsaz.

Etxera itzuli zenean, lehenengo eta behin, gurasoei barkamena eskatu zien. Haiek, guraso guztiek egiten duten gisan, barkatu egin zioten dena.

Gero, entrenatzailea bisitatzaera joan zen. Zertxobait gehiago kostatu zitzaion bere barkamena lortzea, beste bi maitale izan zituen entrenatzaileak berarekin itzuli aurretik.

Ikasketekin ere sinatu zuen su etena eta mediku ona izateko prestatzen hasi zen.

Orain, 36 urteko emakumea da, eta bere lehenengo seme-alabaren haurdun dago, bere garaian entrenatzaile izan zuen gizonaren seme-alabaren zain. Haurdun geratzea maratoia korritzea baino zailagoa izan da, hartutako drogek min eman baitzioten.

Orain, dopatutako kirolariei laguntza eskaintzen dien medikua da. Bere pazienteetako askok ez dute sekula kirol gehiagorik egin.

Ez da lotsatzen. Helmugara azkena heldu da, baina heltzea lortu du. Izan ere, eroriz ikasten da oinez.

* * *

Hamabost urte zituela ikusi zuen lehenengoz. Ordura arte ikusitako neskarik burugogorrena iruditu zitzaion. Bere antza zuen. Ilea trentza luze batean batzen zuen eta alde batera eta bestera mugitzen zuen haizeak. Begi marroi erraldoiak zituen. Hain handiak ziren, non ezin baitzuen sentitzen edo pentsatzen zuena izkutatatu. Begi horiek ez zituen inoiz ahaztuko.

Korrikalarien talde hartako entrenatzaile izateko kontratatua izan zen. Bere ametsik handiena mundialetara heltzea zen, eta ez zen heldu.

Neska hark bizitza aldatuko ziola uste zuen.

Oso ondo egiten zuen korrika eta laster elkarrekin geratzen hasi ziren entrenatzeko, eta lagun minak egin ziren.

Musu eman zionean neskak hemezortzi urte zituen eta berak hogeita bat. Maitaleak izaten hasi ziren. Horrek gutxi iraun zuen, ordea.

Urte horren amaieran Seleizio Nazionaletik deitu zioten. Berri ona eman zionean mundua gainera erortzen zitzaiola sentitu zuen. Ez zuen bere alboan geratu zedila nahi, baina bazekien joaten bazen ez zela inoiz itzuliko. Oker zebilen.

Lau urtez egon zen hiriburuan. Ez zion idatzi, ez zitzaion bisitan joan. Ez zuen ikusi hiru urte luzeetan zehar.

Beste emakume bat ezagutu zuen. Horrek ez zuen funtzionatu, oso goiz zela errepikatzen zion bere buruari baina hori gezur galanta zen. Nahiz eta mila urte pasa, ez zuen inoiz neska burugogorra ahaztuko.

Bigarren emakumea ezagutu berri zuen bere atariaren parean aurkitu zuenean. Bizitako guztia kontatu zion eta barkamen eske etorri zitzaion. Hantxe utzi zuen lehen neska eta orain emakumea zen hura, malkoek bere aurpegi ederra bustitzen zutela.

Beraren beharra izan zuen betidanik eta berarekin maiteminduta zegoela ulertu zuenean bere bila abiatu zen. Hantxe zegoen bera bere zain.

Orain 39 urteko gizona da. Bere lehen seme-alabaren zain dago, bere gaztaroko maitearekin izango duen seme-alabaren zain. Lan neketsua izan zen haurdun geratzea, selekzioa jendeak bere bikoteari injeztatutako drogek min eman baitzioten. Bere errua dela uste du. Berarekin gera zedin konbentzitu izan balu bederen...

Tripa borobil potoloa du bere maitaleak. Gogoko du iluntzean sofán eserita daudela eskua gainean ipintzea eta etorkizuna imajinatzea.

Haur horrek etorkizun polita izan dezan nahi du. Inork minik ez ematea, bederen. Bere bikoteak hori euren esku ez dagoela dio, eroriz ikasten dela oinez.

* * *

Nire amak askotan esaten dit ez naizela hoberena izan behar bera harro egon dadin. Hori badakit nik. Baina helmugara azkena heltzeak sorrarazten didan lotsa ulertzen ez duela uste dut.

Ama eta aita kirolari onak izan ziren gaztetan. Aitak lesio gogor bat izan zuen eta kirola bertan behera utzi behar izan zuen. Ama, berriz, oso ona izan zen, baina kirolarekin obsesionatu eta azkenean utzi egin zuen.

Aita amaren entrenatzailea izan zen eta horrelaxe ezagutu zuten elkar.

Zerbait ezkutatzen didatela uste dut, egia osoa kontatzen ez didatela, alegia. Horrek pena ematen dit. Amari begietan nabaritzen zaio gezurretan dabilenean. Aitaren begietan, berriz, pena handia sumatzen dut nik kirolaren inguruan amari galdetzen diodanean.

Aitonak sarri esaten dit eroriz ikasten dela oinez. Bada, ni, askotan erorita ere, guztietan altxatuko naiz.

Egunen batean, mundialetan hartuko dut parte eta aita eta amak kronoari botatako lasterketak, nik irabaziko ditut.

Anaia txiki baten zain nago. Egia esan, ez dit grazia handirik egiten baina, tira, ez dago beste alternatibarik.

Ibiltzen ikasten duenean nirekin korrika egitera eramango dut.



Ispilua

*Irene Arteta Luque,
Ikasbide HLBHIP.*

Eta handik ihes egin nuen. Norabidea ez nekien, bakarrik nekien korrika nenbilela norantza jakin barik; gero eta azkarrago nindoan. Hiria utzi nuen atzean eta basoan sartu nintzen, korrika eta korrika. Egun iluna zen, horregatik baso barruan ilunago zegoen guztia. Zorte onez, oraindik ez zen hasi iluntzen eta argiago ikusi ahal nuen. Korrika jarraitu nuen, zoruan zegoen guztia sendo zapaltzen. Tontorrera iritsi eta esertzea erabaki nuen, hiri guztia tontorretik begiratzen. Bat batean, soinu bat entzun nuen. Beldurtu egin nintzen baina momentuan beldur hori desagertu egin zen soineko zuriz jantzitako neskato bat nire alboan ikusi nuenean.

Bera hitz egiten hasi zen, ez zidan esan bere izena. Bazirudien elkar ezagutzen genuela betidanik. Ez zion hitz egiteari uzten. Orduan, hainbat gauza galdetu zizkidan. Zergatik nenbilen korrika galdetu zidan. Ez nekien zer esan, baina egia esatea erabaki nuen, ez nuelako ezagutzen eta ez nuelako berriro ikusiko:

—Ba... Esan ahal dugu ez daukadala familia normal bat. Nire aitak ama jotzen du eta gaur erabaki dut amaren alde egitea eta sekulako jipoia eman dit.

—Horregatik zaude hemen... —isilik gelditu zen—. Besteengana joan behar dut.

—Norengana?

—Beste hilen bila...

Ez dut ametsik egin nahi!

*Irati Cadenato González,
Gabriel Aresti BHI.*

Ohetik altxatzen naizen bakoitzean gauza bera galdetzen diot neure buruari: zer dira ametsak? Nondik datoz? Nik uste dut ametsak gogoko ditugun baina esaten ez ditugun gauzak direla. Ametsetan gure sentimenduak adierazteko askatasun handiena dugun momentua da. Dena den, nik trebetasun bat dudala uste dut. Batzuetan, nire bizitzan gertatzen zaizkidan gauzarik harrigarrienak, normalki, ametsetan gertatu izan zaizkit lehenago. Hunkigarria, ezta?

Ba goiz batean, oso txarto altxatu nintzen. Ametsik arraroena eduki nuen gau hartan. Bat baino gehiago eduki izan nituen, baina aurrekoaren oso ezberdina. Gogoratzen dudan lehenengo ametsean mutil bat agertzen zen parke batean jolastan, bakarrik eta triste. Hurrengo ametsean, ni banku baten eserita nengoen eta lurrean paper bat ikusten nuen. Hartu eta irakurri egin nuen: “Pertsona bakoitza munduan bere lekua aurkitzen saiatzen da, baina batzuetan ez dago leku nahikorik hainbeste jenderentzat. Zurekin beti, zure bihotzeko dilista.” Azken hori ez nuen ondo ulertzen. Dilista? Zergatik dilista? Beste amets batean neska bat ateratzen zen, lurrean etzanda eta negarrez. Ez dakit nor zen, ez niolako aurpegia ikusi.

Ametsak burutik kendu ezinik, ohetik altxatu eta gosaltzera joan nintzen.

—Egun on, Nekane. Zelan egin duzu lo? —nire amaren ahotsa entzun nuen.

Nire amak Amaia du izena. Batzuetan ez dela nire ama pentsatzen dut. Ezin gara egon egun oso bat elkarrekin eztabaidatu barik. Gainera, gure eztabaidak ez dira eztabaida txikiak, pertsona normalek izaten dituzten bezalakoak. Gureak, aldiz, erraldoiak izaten dira beti, nahiz eta lelokeria batengatik hasi. Herenegun, hain haserre nengoen, etxetik joan egin nintzen. Nire lagun minaren etxera joan nintzen lo egitera, eta galdetu ere ez nuen egin.

—Ondo, ama.

Oraindik haserre hor zegoen. Horregatik, nire motxila hartu eta etxetik irten nintzen.

Beti bezala, Aratz, nire lagun mina, nire bila etorri zen eta biok institutura abiatu ginen batera. Aratz mutil ezin hobea da. Oso ondo daki hitz egiten eta entzuten. Horregatik, nire gauzak berari kontatzeak asko laguntzen dit. Nahiz eta ametsena ez nion kontatu. Ez nengoen hain ziur inori esan ahal niola. Baina badaezpada oraindik ez nuen ezer esango.

—Kaixo! —agurtu ninduen Aratzek, irribarre txiki batekin.

—Egun on —erantzun nion nik—. Ez oso pozik nire amarekin gertatukoaren ondorioz.

Berak ez zuen ezer galdetu, aspalditik zekielako zer gertatzen zen nire etxean. Isilpean institutuko atera heldu ginen eta klasera sartu ginen biok batera. Gelara sartu bezain laster, Hodei guregana hurbildu zen artazi batzuek eskuetan.

—Zelan, memelo? —Aratzi hitz egiten ari zitzaion.

Aratz Hodei saihesten saiatu zen, erantzun barik. Baina, nola ez, leloa nire lagun minaren aurrean jarri zen.

—Ei, txotxongilo. Ez zaitez lerdo ipini —esan zion artaziak bere lepora hurre-ratzen zituen bitartean—. Gaur zure hamaiketakoa niri emango didazu. Eta ez duzu ezer kontra edukiko.

Aratzek buruarekin baietz esan eta bere mahaian jesarri zen. Ni bere alboan jarri nintzen eta belarrira xuxurlatu nion:

—Jolas orduan zuzendariarengana joango gara eta hau guztia konponduko dugu, ados?

Baina berak, beti bezala, ezetz esan zidan. Egunero pasatzen da, eta nik egunero gauza bera esaten diot. Baina berak ez du nahi. Pentsatzen du norbaiti esaten badiot, okerrago izango dela, nahiz eta horrela ez izan.

Egun osoan izan nuen buruan Aratz. Ez da erraza izan behar horrela bizitzea. Klaseak amaitu ondoren, Aratz institututik korrika atera zen, beti bezala. Egunero horrela irteten da eta ni kanpoan itxaroten nau, beldur gehiegi ematen diolako ni gelan itxarroteak. Nire gauzak hartu eta han zegoen, nire zain. Bidetik betiko gauzez hasi ginen hizketan. Eta azkenean, Aratzek negarrez amaitu zuen.

—Ez dakizu zer den egunero ohetik beldurrarekin altxatzea. Bakarrik eskolara helduko naizelako eta nire hamaiketakoa kenduko didatelako, edo nire dirua komu-nera botako didatelako.

Inoiz baino txarrago ikusi nuen, negarra gelditu ezinik. Hitzak bere ahotik metraileta baten moduan ateratzen ziren gelditu barik.

—Gainera, txarrena ez dira egunero jasaten ditudan kolpeak. Irainak eta mehatxuak ere hor daude. Nire familiaren kontrako mehatxuak! Nitaz arduratzen naiz, baina eta nire familiari zer edo zer gertatuko balitzaio ni erruduna izanda? Ez dakit zer egingo nukeen, Nekane. Nik ez dakit hau nola gelditu, zer egin dezaket gehiago? Guztia frogatu dut, baina beldur hori ez da joaten. Nik, bakarrik, nire lekua aurkitu nahi dut.

Minutu batzuetan isiltasuna egon zen. Ez nekien zer esan. Begiak malkoz beterik nituen eta ahoa hitzik gabe. Ahal nuen moduan berarekin hitz egiten saiatu nintzen. Behintzat, bere etxera heldu ginenean negar egiteari utzi zion.

—Eskerrik asko —esan zidan begietara begira—. Benetan, milesker.

Orduan besarkada handi bat eman zidan, eta han agurtu ginen.

Hurrengo egunean, larunbata zen eta Aratzekin herriko landa ezkutu batean geratua nintzen. Gure lekua zen betidanik, txikitatik joaten ginen bertara jolastera. Inoiz ez zegoen inor. Seguraski horregatik gustatzen zitzaigun horrenbeste, beti bakarrik geundelako.

Arratsaldeko seiak ziren landa horretara heldu nintzenean. Aratzi itxaroten egon nintzen hamar minututan, eta ez zen etorri. Orduan, nire alboan zegoen banku batean eseri nintzen. Bat-batean, amets batean eduki nuen irudi bat etorri zitzaidan burura. Ni banku batean eserita. Orduan gogoratu nuen. Ametsean paper bat aurkitu nuen lurrean. Lurrera begiratu nuen, eta han zegoen! Irakurri, eta ametsen irakurri nuen bera zen: “Pertsona bakoitza munduan bere lekua aurkitzen saiatzen da, baina batzuetan ez dago leku nahikorik hainbeste jenderentzat. Zurekin beti, zure bihotzeko dilista.” Baina hori ez zen dena. Nire alboan orri bat aurkitu nuen, dilistaz beterik. Dilisten artean ipintzen zuena irakurtzen saiatu nintzen: “Nire lagun minarentzat. Maite zaitut, Aratz.” Eta orri horren ertz batean nire sinadura agertzen zen. Zazpi urterekin nuen sinadura zen. Orduan ulertu nuen guztia. Zazpi urte genituenetik orain arte nire opari hau gorde egin du. Dilistez eginda. Horregatik dilista, berak idatzitako paperan.

Pixkanaka-pixkanaka, bere mezua ulertzen hasi nintzen. “Pertsona bakoitza munduan bere lekua aurkitzen saiatzen da, baina batzuetan ez dago leku nahikorik hainbeste jenderentzat. Zurekin beti, zure bihotzeko dilista.” Aratz ez zen jaio mundu honetan bizitzeko. Ametsetan eduki nuen irudia etorri zitzaidan burura berriro: mutila parkean jolasten bakarrik. Hura Aratz zen, txikia zenean.

Konturatu baino lehen, lurrean nengoen botata, negarrez, ametsetan ikusi nuen neska bezala. Ez nuen hori espero, eta nahiz eta ez nuen ikusi nahi, nire lagun mina galdu egin nuen, betirako.



Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Peioren botereak	9
- Tarta goxozalea	12
- Neska futbolariak	15
- Pinguino ausarta	17
- Zuhaitz zaharra	19
- Laura surfalaria	21

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

- Shaimaren eta Itziarren gustuko bizitza	25
- Astronauta bikaina	29
- Liburu misteriotsua	31
- Desberdina!	34
- Benetan da garrantzitsua nolakoa naizen?	38
- Zorion expressaren altxorra	41
- Ume errefuxiatua naiz	43

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

- Kristalaren kontra	47
- Aitite Ricardoren bizipenak	49

- Txanogorritxurekin gertatu zena	51
- Amets elkartuak	53
- Musu batean jakingo duzu isildu dudan guztia	55
- Amaren arrastoak	58

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Lo egin	63
- Amaieraren hasiera	66
- Daniela	71
- Arinago, arinago!	74
- Ispilua	78
- Ez dut ametsik egin nahi!	79



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO